HAIK	LITTEAN, ZITTEAN	leitzen	leitrün	leitzon	leitizün	leitzaen	leitzen
NI	HAIETKE	mitavik, n	mitakizü	mitakio	mitakigü	mitakizüe	mitakie
HI	HAIETKE	hitakit		hitakio	hitakigü	hitakizüe	hitakie
ZÜ	ZAIETKE	zitakit		zitakio	zitakigü	zitakizüe	zitakie
HORA	HAIETKE	ditakit	ditakizü	ditakio	ditakigü	ditakizüe	ditakie
GU	GAIETKE	gitakit, n	gitakizü	gitakio	gitakigü	gitakizüe	gitakie
ZUEK	ZAIETKE	zitakidae		zitakioe	zitakigüe	zitakizüe	zitakioe
HAIK	DIETKE	ditakitza	ditakizü	ditakizo	ditakizgü	ditakizüe	ditakitze
NI	HEITERE	neinkik, n	neinkizü	neinkio	neinkigü	neinkizüe	neinkie
HI	HEITERE	heinkit		heinkio	heinkigü	heinkizüe	heinkie
ZÜ	ZINTAKE	zeneinkit		zeneinkio	zeneinkigü	zeneinkizüe	zeneinkie
HORA	LEITKE	leikik, n	leikizü	leikio	leikigü	leikizüe	leikie
GU	GINTAKE	geneinkik, n	geneinkizü	geneinkio	geneinkigü	geneinkizüe	geneinkie
ZUEK	ZINTAKE	zeneinkidae		zeneinkioe	zeneinkigüe	zeneinkizüe	zeneinkioe
HAIK	LIITAKE	leitkit	leitkün	leitkio	leitkigü	leitkizüe	leitkie

XIBEROTARREZ

NI NINTEKEAN	nintakian, ñan	nintakion	nintakizüen	nintakien
HI HINTEKEAN	hintakidan	hintakion	hintakizüen	hintakien
ZÜ ZINTEKEAN	zintakidan	zintakion	zintakizüen	zintakien
HURA ZITEKEAN	zitakian, ñan	zitakion	zitakizüen	zitakien
GÜ GINTEKEAN	gintakian, ñan	gintakion	gintakizüen	gintakien
ZUEK ZINTEKEAN	zintakidaen	zintakioen	zintakizüen	zintakieen
HAIK ZITEKEAN	zitakidan	zitakion	zitakizüen	zitakien

NI BANENKI	banenkik, n	banenkio	banenkizüe	banenkien
HI BARENKI	bahenkit	bahenkio	bahenkizüe	bahenkien
ZÜ BAZINTE	bazenenkit	bazenkio	bazenkizüe	bazenkien
HURA BALEDI	baletik, n	baletio	baletizüe	baletien
GÜ BAGINTE	bagenenkit, n	bagenkio	bagenkizüe	bagenkien
ZUEK BAZINTE	bazenkidae	bazenkioe	bazenkizüe	bazenkiee
HAIK BALITE	baletkit	baletio	baletizüe	baletien

NI HAKI	hakik, n	hakio	hakizüe	hakien
HI HADI	hakit	hakio	hakizüe	hakien
ZÜ ZITE	zakitrat	zakitzo	zakitree	zakitze
HURA BEDI	bekit	bekio	bekizüe	bekien
GÜ				
ZUEK ZITEE	zakitzadae	zakitzoa	zakitree	zakitzea
HAIK BITE	bekitrat	bekitza	bekitree	bekitzea

XIBEROTARREZ

	MIK	DUK	ZUK	HAREK	GUK	ZUEK	HAIK	ENI	HIRI	ZURI	HARI	SURI	ZUER	HAIER
	DUT	DUTOK/N	DUTUZU	DUTU	DUTUGU	DUTUZUE	DUTUE	deitak,n deitazü deit	deiat,ñat	deizüt	deiot	deigök,n deigürü	deizüet	deiet
	HAREK DU	DUTUGU	DUTUZUE	DUTUE				deik,n deigü,ñagü	deizü	deizüü	deio	deigü	deizüü	deie
	ZUEK DUZUE	HAIK DUE						deitazüe deitae	deizüe	deizüü	deiozue	deigüe	deizüee	deize
	MIK NIJAH	MIK NIJAH	ZUK ZUNJAH	HAREK ZUAH	GUK ZUNJAH	ZUEK ZUNJEN	HAIK ZÜEN	heitan zeneitan zeitan	neian,ñan	neizün	neion	heigün	neizüen	neien
	ZUK ZUNJAH	HAREK ZUAH	GUK ZUNJAH	ZUEK ZUNJEN	HAIK ZÜEN			zeneitan zeitan zeneitaen zeitaen	zeian,ñan geneian,ñan	zeizün geneizün	zeion geneion	zeneigün zeigün	zeizüen zeizüen	zeneien zeien gezeien zeneieen zeieen
	MIK HÜKE	MIK HÜKE	ZUK ZUHKE	HAREK LÜKE	GUK ZUHKE	ZUEK ZUHKEE	HAIK LÜKEE	heiket zeneiket leiket	neikek,n	neikezü	neikeo	heikegü	neikezüe	neikee
	ZUK ZUHKE	HAREK LÜKE	GUK ZUHKE	ZUEK ZUHKEE	HAIK LÜKEE			zeneiket leiket zeneikedae leikedae	leikek,n geneikek,n	leikezü geneikezü	zeneikeo geneikeo	zeneikegü leikegü	zeneikee leikee	
	MIK HÜKEAH	MIK HÜKEAH	ZUK ZUHKEAH	HAREK ZÜKEAH	GUK ZUHKEAH	ZUEK ZUHKEE	HAIK ZÜKEE	heikedan zeneikedan zeikedan	neikean,ñan	neikezün	neikeon	heikegün	neikezjen	neikeen
	ZUK ZUHKEAH	HAREK ZÜKEAH	GUK ZUHKEAH	ZUEK ZUHKEE	HAIK ZÜKEE			zeikedan zeneikedan zeikedan	zeikean,ñan geneikean,ñan	zeikezün geneikezün	zeikeon geneikeon	zeneikegün zeikegün	zeikezjen geneikezjen	zeikeeen geneikeeen zeneikeeen

XIBEROTARREZ

NIK BANÜ	BANÜTÜ	baneik,n	baneizü	baneio	baneizüe	baneie
HIK BANÜ	BANÜTÜ	bahait		bahio		bahie
ZÜK BAZUNÜ	BAZUNÜTÜ	bazeneit		bazeneio		bazeneie
HAREK BALÜ	BALÜTÜ	baleit		baleio		baleie
GÜK BASUNÜ	BASUNÜTÜ	baleik,n	baleizü	baleio		baleie
ZÜEK BAZÜNÜE	BAZÜNÜTÜE	bageneik,n	bageneizü	bageneio		bageneie
HAIK BALÜE	BALÜTUE	baleiae,ñae	baleizüe	baleioe		baleiee

NIK DEZADAN	DITZADAN	dizadaan,ñadan	dizazüdan	dizadan	dizazüdan	dizadean
HIK DEZAN/ÑAN	DITZAN/ÑAN	dizadaan,ñan		dizadan,ñan		dizadean,ñan
ZÜK DEZAZÜN	DITZAZÜN	dizadzün		dizazün		dizazüün
HAREK DEZAN	DITZAN	dizadan		dizan		dizan
GÜK DEZAGÜN	DITZAGÜN	dizaaün,ñagün	dizazügün	dizagün		dizagün
ZÜEK DEZAZÜEN	DITZAZÜEN	dizadzüen		dizazüen		dizazüün
HAIK DEZAN	DITZAN	dizadan,ñan	dizazüen	dizaden		dizadean

NIK HEZAN	HEZAN	nizaan,ñan	nizazün	nizaan	nizazüen	nizaeen
HIK HEZAN	HEZAN	hizadan		hizaan		hizaeen
ZÜK ZENEZAN	ZENETZAN	zinizadan		zinizaan		zinizaeen
HAREK LEZAN	LETZAN	lizadan		lizaan,ñan		lizaeen
GÜK GENEZAN	GENETZAN	ginizaan,ñan	ginizazün	ginizaan		ginizaeen
ZÜEK ZENEZAN	ZENEZAN	zinizadaan		zinizaaen		zinizaeen
HAIK LEZAN	LETZAN	lizadaan,ñan	lizazüen	lizaaen		lizaeen

NIK DEZAKET	DEZAKET	dizakaet,ñat	dizakezüt	dizakeot	dizakezüt	dizakeet
HIK DEZAKEK/N	DEZAKEK/N	dizakedak,n		dizakeok,n		dizakeek,n
ZÜK DEZAKEZÜ	DEZAKEZÜ	dizakedazü		dizakeozü		dizakezü
HAREK DEZAKE	DEZAKE	dizakak,n	dizakezü	dizakeo		dizakee
GÜK DEZAKEGÜ	DEZAKEGÜ	dizakaagü,ñagü	dizakezügü	dizakeogü		dizakeegü
ZÜEK DEZAKEZÜE	DEZAKEZÜE	dizakedazüe		dizakeozüe		dizakezüe
HAIK DEZAKEE	DEZAKEE	dizakaeae,ñae	dizakezüe	dizakee		dizakeee

XIBEROTARREZ

NIK	HEZAKE	NETZAKE	eni	hari	zuri	hari	guri	zür	hoie:
HIK	HEZAKE	HEITZAKE	hizakit	nizakik	nizakizü	nizakeon	nizakigü	nizakizüe	nizakie
ZÜK	ZENEZAKE	ZENETZAKE	zimirakit	nizakik,n	lizakizü	zenezakeon	hizakigü	nizakizüe	nizakie
HAREK	LEZAKE	LEITZAKE	lizakit	lizakik,n	lizakizü	zazakeon	lizakigü	lizakizüe	lizakie
GIK	GENEZAKE	GENETZAKE	zimirakidæ	genizakik,n	genizakizü	genezakeon	genizakigü	genizakizüe	genizakie
ZÜEK	ZENEZAKEE	ZENETZAKEE	lizakidæ	lizakiae,næ	lizakizüe	zazakeon	zinezakigüe	zinezakizüe	zinezakiee
HAI EK	LEZAKEE	LEITZAKEE	NETZAKEAN	nezakean,næn	nezakezün	zazakeon	lizakigüe	lizakizüee	lizakiee
NIK	HEZAKEAN	HEITZAKEAN	zenezakedan	nezakean,næn	nezakezün	zenezakeon	nezakezün	nezakezün	nezakeen
HIK	HEZAKEAN	HEITZAKEAN	zenezakedan	nezakean	hezakegün	zenezakeon	hezakegün	hezakegün	hezakeen
ZÜK	ZENEZAKEAN	ZENETZAKEAN	zazakedan	zenezakean	zenezakegün	zazakeon	zenezakegün	zenezakegün	zenezakeen
HAREK	LEZAKEAN	LEITZAKEAN	zenezakedan	zenezakean,næn	zenezakezün	zazakeon	zenezakegün	zenezakezün	zazakeen
GIK	GENEZAKEAN	GENETZAKEAN	zenezakedan	genezakean,næn	genezakezün	genezakeon	genezakegün	genezakezün	genezakeen
ZÜEK	ZENEZAKEAN	ZENETZAKEAN	zenezakedan	zenezakean,næn	zenezakezün	zazakeon	zenezakegün	zenezakezün	zenezakeen
HAI EK	LEZAKEAN	LEITZAKEAN	NETZAKEAN	nezakean,næn	nezakezün	zazakeon	nezakegün	nezakezün	zazakeen
NIK	BANEZA	BANITZA	bahizat	banizak,n	banizazü	banizao	banizazü	banizazü	banizæ
HIK	BANEZA	BANITZA	bahizat	banizak,n	banizazü	bahizao	bahizazü	bahizazü	bahizæ
ZÜK	BANEZA	BANITZA	banizat	banizak,n	banizazü	banizao	banizazü	banizazü	banizæ
HAREK	BANEZA	BANITZA	banizat	banizak,n	banizazü	banizao	banizazü	banizazü	banizæ
GIK	BANEZA	BANITZA	banizat	banizak,n	banizazü	banizao	banizazü	banizazü	banizæ
ZÜEK	BANEZAE	BANITZAE	banizadæ	banizak,næ	banizazüe	banizaoe	banizazüee	banizazüee	banizæe
HAI EK	BANEZAE	BANITZAE	banizadæ	banizak,næ	banizazüe	banizaoe	banizazüee	banizazüee	banizæe
NIK	izadak,n	izak,n	izagük,n	izak,n	izagük,n	izak,n	izæk,n
HIK	EZAK/N	ITZAK	izadak,n	izak,n	izagük,n	izak,n	izagük,n	izak,n	izæk,n
ZÜK	EZAZÜ	ITZAZÜ	izadzü	izazü	izagüzü	izazü	izagüzü	izazü	izæzü
HAREK	BEZA	BITZA	bitat	bizak,n	bizazü	bizao	bitagü	bitazü	bitæ
GIK	izadzü	izazü	izagüzü	izazü	izagüzü	izazü	izæzü
ZÜEK	EZAZÜE	ITZAZÜE	bitadæ	bizak,næ	bizazüe	bizaoe	bitagüe	bitazüe	bitæe
HAI EK	BEZAE	BITZAE	bitadæ	bizak,næ	bizazüe	bizaoe	bitagüe	bitazüe	bitæe

	MI	HT	Z	V	Z L- r N
HIK		haut	zütüt		zütüet
HIK	naük,n			gütük,n	
ZÜK	naüzü			qütüzü	
HAREK	naü	haü	zütü	gütü	zütüe
ÖÜK		haügu	zütügu		-zütüegü
ZÜEK	naüzüe			gütüzüe	
HAIEK	naüe	haüe	zütüe	gütüe	zütüee
HIK		hündüdan	züntüda		züntüedan
HIK	nündüan,ñan			güntüan,ñan	
ZÜK	nündüzün			güntüzün	
HAREK	nündüan	hündüan	züntüan	güntüan	züntüen
ÖÜK		hündüqün	züntüqün		züntüegün
ZÜEK	nündüzüen			güntüzüen	
HAIEK	nündüen	hündüen	züntüen	qüntüen	züntüeen
HIK		hündüket	züntüket		züntükeet
HIK	nündükek,n			güntükek,n	
ZÜK	nündükezü			güntükezü	
HAREK	nündüke	hündüke	züntüke	qüntüke	züntükee
ÖÜK		hündükeqü	züntükeqü		züntükeegü
ZÜEK	nündükezüe			qüntükezüe	
HAIEK	nündükee	hündükee	züntükee	qüntükee	züntükeee
HIK		hündükedan	züntükedan		züntükeedan
HIK	nündükean,ñan			güntükean,ñan	
ZÜK	nündükezün			qüntükezün	
HAREK	nündükean	hündükean	züntükean	qüntükean	züntükeean
ÖÜK		hündükedün	züntükedün		züntükeegün
ZÜEK	nündükezüen			qüntükezüen	
HAIEK	nündükeean	hündükeean	züntükeean	qüntükeean	züntükeeean
HIK		bahündüt	bazüntüt		bazüntüet
HIK	banündük,n			bagüntük,n	
ZÜK	banündüzü			bagüntüzü	
HAREK	banündü	bahündü	bazüntü	bagüntü	bazüntüe
ÖÜK		bahündüqü	bazüntüqü		bazüntüegü
ZÜEK	banündüzüe			banündüzüe	
HAIEK	banündüe	bahündüe	bazüntüe	bazüntüe	bazüntüee
NIK		hezadan	zitzadan		zitzaedan
HIK	nezaan,ñan			gitzaan,ñan	
ZÜK	nezazün			gitzazün	
HAREK	nezan	hezan	zitzan	gitzan	zitzaan
ÖÜK		hezagün	zitzagün		zitzaedün
ZÜEK	nezazüen			gitzazüen	
HAIEK	nezaen	hezaen	zitzaan	gitzaan	zitzaeen

BIK		hentzadan	zintzadan		zintzaedan
HIK	nentzaan,ñan			gintzaan,lan	
ZÜK	nentzazün			gintzazün	
HAREK	nentzan	hentzan	zintzan	gintzan	zintzaen
ÖÜK		hentzagün	zintzagün		zintzaegün
ZÜEK	nentzazüen			gintzazüen	
HAIEK	nentzaen	hentzaen	zintzaen	gintzaen	zintzaeen
BIK		hezaket	zetzaket		zetzakeet
HIK	nezakek,n			get/akek	
ZÜK	nezakezü			getzakezü	
HAREK	nezake	hezake	zetzake	getzake	zetzakee
ÖÜK		hezakeqü	zetzakegü		zetzakeeqü
ZÜEK	nezakezüe			getzakezüe	
HAIEK	nezakee	hezakee	zetzakee	getzakee	getzakeee
BIK		hentzaket	zentzaket		zentzakeet
HIK	nentzakek,n			gentzakek,n	
ZÜK	nentzakezü			gentzakezü	
HAREK	nentzake	hentzake	zentzake	gentzake	zentzakee
ÖÜK		hentzakezü	zentzakegü		zentzakeegü
ZÜEK	nentzakezüe			gentzakezüe	
HAIEK	nentzakee	hentzakee	zentzakee	gentzakee	zentzakeee
HIK		hentzakedan	zentzakedan		zentzakeedan
HIK	nentzakean,ñan			gentzakean,ñan	
ZÜK	nentzakezün			gentzakezün	
HAREK	nentzakean	hentzakean	zentzakean	gentzakean	zentzakeen
ÖÜK		hentzakegün	zentzakegün		zentzakeegün
ZüEK	nentzakezün			gentzakezün	
HAIEK	nentzakeen	hentzakeen	zentzakeen	gentzakeen	zentzakeeen
BIK		bahentzat	bazintzat		bazintzaet
HIK	banentzak,n			bagintzak	
ZÜK	banentzazü			bagintzazü	
HAREK	banentza	bahentza	bazintza	bagintza	bazintzae
ÖÜK		bahentzagü	bazintzaqü		bazintzaegü
ZÜEK	banentzazüe			bagintzazüe	
HAIEK	banentzae	bahentzae	bazintzae	bazintzae	bazintzaee
BIK				
HIK	nezak,n			gitzak,n	
ZÜK	nezazü			gitzazü	
HAREK					
ÖÜK					
ZÜEK	nezazüe			gitzazüe	
HAIEK					

EDESTI

ERDIAROKO EUSKAL- IZENEN IDAZKERA (II ATALA) BALPUESTA'KO GOTZAI DIAREN LARRUKIAK

804'EKO BESTE IDAZKI BAT

Asturietakoko II Alfontso'k Araba'ko Gobiaren'go Balpuesta'n elizbarruti berri baten sorkuntzakoan idatzitako gutun bat arj giñan aztertzen, eta idazki artan agertzen diren erri-izenen azterketa bukatu, Erregeak aipatzen dituan Doneenari asiera emateko garaia iritxia zitzaigula esan genuan.

Ez zait ordea iduritzen Done oien azterketa, bigarren larruki au aipatu gabe egoki egin daitekeanik.

Bi larrukiak anaiak bait dira, urte bereko egun berean idatziak bait dira eta bat bera bait dute mamia: Balpuesta'ko elizbarrutiaren sorkuntza. Bietako bat esan dugun II Alfontso erregearena da; bestea Jon Balpuesta'ko lenen gotzaiarena.

«Sub Christi nomine & eius Imperio. Ego Joannes Episcopus sic veni in locum qui vocatur Vallis posita & inveni ibi Ecclesiam desertam vocabulo Sanctae Mariae Virginis, & feci ibi fita sub regimine Domini Adepsoni Principis Obedi: & construxi, vel confirmavi ipsam Ecclesiam in ipso loco...»

Euskeraz:

«Josu'ren izen eta agintepean. Ni Jon Gotzai Vallis composita deritzan lekura etorri nintzan, eta, bertan, Miren Neskutsa Donearen izena duan Eliza ondaturik aurkitu nuan, eta antxe egin nuan nere FITA Alfontso Obiedo'ko Printzipe Jaunaren erregetzakoan. Eta eraiki, edo beintzat, sendotu nuan bertako Eliz ura...»


Orra or lerro gutxi batzuen tarte laburrean lau korapillo, askatu-bearrak:

- 1.^a: «FITA» ori zer izan daitekean.
- 2.^a: Bere errege bezala aipatzen du Jon Gotzaiak Asturietakoko Alfontso. Araba'ren sartaldea Asturiarren menpean ote zegoan?
- 3.^a: Nongoa ote zan jatorriz Jon Balpuesta'ko gotzai?
- 4.^a: Araba'ren sarkaldeko elizak nork ondatu ote zituan? Balpuesta'koa bezala beste eliz batzuk eraiki zituala bait diosku Jon gotzaiak.


Ikus:

– *Et aedificavi ibi (in Losa) Ecclesiam vocabulo Sanctorum Iusti et Pastoris*»:


Euskalerriko Elizarik Zaarrena




s. ix



S. x



S. XII



S. XIX

«Eta bertan (gaur Burgos'koa dan Losa Aranean) Justo eta Pastor doneen ize-
na daraman Eliza eraiki nuan».

— *Inveni ibi (in Pontacre) Ecclesias antiquas vocabulo Sanctorum Cosmae & Damiani, & S. Stephani, & S. Cypriani, S. Joannis, Sanctorum Petri & Pauli, & S. Caprasii et confirmavi eas...*» Euskeraz «An (Losa'n) Kosme eta Damian, eta

Doneztebe, ta Doneziprian, eta Donibane, ta Kepa eta Paul, eta Kaprasi Doneen izenak zituzten Elizak, antziñako Elizak, aurkitu nituan; eta birr-eratu».

Garrantzitsua dan beste zerbait ere esaten digu Jon Gotzaiak: «Pres-sura» asko egin zuala Gobiaran eta Losa Aran'eko lurretan.

«Pressura egitea» («facere pressuram») norbaitek jaberik gabeko ondasunak beretzat artzeari esaten zitzaion: adibidez, jaberik gabeko landa, larre, baso, iturri, ibai, eta orrelako beste zerbaiten jabetza bereganatzeari.

Eta orra or nola beste arazo bat agertzen zaigun:

Lurralde aiek jenderik gabe zeuden. Beti egon ote ziran orrela? Jabetza galdu ote zuten beren jabe izandako aiek? Zer-zala-ta? Iges egin ote zuten beste tokiren batera? Zergaitik ordea, eta nora ta noren bildurrez joan ote ziran lurralde aietako jendeak igesi?

Beste Done batzuen izenak ere agertzen zaizkigu larruki ontan, baiñan ez du Jon Gotzaiak Done oien Elizak berak eraiki edo eraberritu zituanez esaten.

«Eliza» esatean ez ezazu uste «Eliz» aiek, naiz «E» nagusiz idatziak agertu, baselizatxo batzuk baiño ezer geiago ziranik.

Ainzuzen, agertu berria zaigu antxe bertan, TOBILLAS deritzan Gobiaran'go erriska batean, Balpuesta'tik lau pausora, IX mendeko eliz bat, Azkarate ta Garai-Olaun'dar Augustiñ'ek dotore aztertu ta ezagutzera emana. Alboko ornan ikusi dezakezu nolakoa izan zan IX mendeko eliz ura, eta gero mendeak zear erantsi zaizkion puska berriak.

Alakoa izan zan Jon Gotzaiak IX mende artan bertan, Balpuesta'n, bere elizbarrutiko uri buruan, eratu zuan «katedrala».

Euskalerrian, orain arte, agertutako jauretzerik zarrenetakoa —zarrena seguruaski— bera dalako, emaitzegun berari-buruzko xeetasun batzuk:

- Gure egunetaraño iritxi zaiguna — eta alboko orri ortan ikusi dezakezuna, IX mendeko elizaren abside edo aldare-osteko elizburua da.

Baiñan abside orren ezkeraldera eliz zarraren oiñarrietako arriak agertu zaizkigu.

- Garrantzi aundiko agerpena, elizaren neurriak jakin ahal izateko giltzarik egokiena bait dira. Izanere, gero eliz artan egin diran eraberritze-lan guztian oiñarri aien gainean egiñak izan diralako, gaurko elizari so egitea naikoa dugu, IX mendeko Eliz ura txikia izan zala jakiteko.

- Berritze-lan oietatik aurrenekoa X mendearen asieran, Bigila izeneko beste abata batek egindakoa da: «Levantó desde su base una nueva nave utilizando la cimentación de la anterior, aunque adoptando una orientación algo distinta».

- Altagutziz, elizatxo ura lekaidetxe baten eliza izateko izan zan Abito (Avitus) izeneko abata batek eraikia. Ongi aberastua gainera: 100 bei, 20 zaldi ta mando, 500 ardi, 24 liburu, eta lurrez, puska ederrak inguruko eta ez aian inguruko lekuetan, Bureba'n adibidez; baiñan lekaidetxe bati urrutiko alorrak ere emate ori oiturazko gauza zala erakutsi digute aztertuak ditugun Kukulla'ko dokumentu bederatzimendetarrek.

- Aurreneko eliz ori, eskier, IX mendearen asierakoa da.

- Eliz ura, Abito'k, seguruaski erromateko egoitza baten gainean jaso zuan, eta, eskier, erromateko arri landu batzuk erabilliz. Arritzekoa ez dan gauza; Tobillas'en bertan, (euskaldunak Euskalerriko zokorik baztartenetan ere beren aroko mundutik at bizi ez ziralaren adigarri), egoitza erromatar bat aurkitua izan bait da!

Ori dana nola dakigun?

- Oña'ko lekaidetxearen «Kartulario» edo «dokumentu-liburu»ari eskerrak. Dokumentu oietako bat Abito Abata'k 822'ean egindako testamentua bait da; eta Tobillas'ko lekaidetxe ura, bertan bizitzeko asmotan eraiki zuala, esaten bait digu'.

- Beraz, urte orren aurrekoa da Tobillas'ko lenen eliza. Noizkoa? Ezpairik gabe IX mendearen astapenekoa. Gutxigorabera, Yon gotzaiak Balpuesta'ko eliza eraiki zuan urte berekoa².

- Eunen bat urte geroago, absidea gordez, eliz ori bota egin zuan, eta botatako eliz orren oiñarrien gaiñean beste eliz berri bat eraiki Bijila izeneko beste abata batek. Badugu birre;raketa orren berri ematen digun 939'ko arri-idatzi bat. Baiñan erromanikera-aurreko bigarren eliz ori X mendekoa da. Gu ordea IX mendeko gauzak eta gertakizunak ari gera idazlan auetan aztertzen.

- Esan dezagun, amaitzeko, IX eta X mendeko eliz bi oietan ez dala bisigot-tankerakoa izan daitekeanik ezer agertzen. Onela dio Azkarate'k berak: «No existe argumento alguno que invite a su adscripción en época visigoda». Ez zaiola mozarabitar izan daitekeanik ere deus agertzen, erantsiko nioke nik gaz-telerazko esakizun orri.

- Izanere, bigarren eliza — 939'koa — egiterakoan bi donerenganako eraspenak bultzaturik ari dala diosku Bijila'k aipatutako arri-idatzian: «*In honorem Sancti Romani et Sancti Cipriani*».

Erroman Deunaren izenean jaso zuan aurreneko eliza Abito'k ere.

Baiñan Doneerroman onen eraspina ere, Done ori sortaldekoa zalako, Jeronimo'ren Martiritegian datorrelako, eta Prudentzio'k bere Peristefanon poemako abestirik luzeena — X'a — eskeiñi ziolako, ez daiteke bisigotengandik etorri zitzaigunik esan.

Aundia Prudentzio'k dagion goratzarrea: Azkenjuizioko egunean ere, Erroman'en otoitza «antxumeak» «arkume» biurtzeko gai izan daitekeala esanez amaitzen bait du eska;ñi zion ereserki mardula:

*Vellem, sinister inter haedorum greges
ut sum futurus, eminens dignoscerer,
atque hoc praecante diceret Rex Optimus:
«Romanos orat, transfer hunc haedum, mihi
sit des ter, agnus induatur uellere»*

Euskeraz

*(Azkenjuiziorako) au nere naia:
Arkumeen artean izango bait naiz ezarria,
urrutitik onek (Erroman'ek) ikusia izatea,
eta aren otoitza on-entzunez Errege Biotzberak au esatea:
«Erroman'ek eskatu dit-eta, betor antxume ori
nere eskubira». -Nedi, an, artillez jantzia!»³.*

¹ Ez bezait iñor ar'itu Erroman Doneari "Durruman" (Deun Roman) esan diodalako. Araba'n bai bait dugu "San Román de San Millán" izeneko erri bat, eta bertako semea -eta bertakoen semea- dan Langarika'ko Gontzalorena'tar Alberto Gazteiz'ko Elizbarrutiko artxibozaiñak, berak gaztetan bere erri artako agurei, beren erriari SANDURRUMAN esaten entzuna dala, bein baiño geiagotan esan bait dit.

² Eliz ortaz zerbait geiago jakin nai duanak, irakurri beza Azkarate Garai- Olaun'ek, esanik utzi dedan tokian, argitaratutako lan bikain oparoa. Lan ortatik artu ditut nik emen emandako xeetasunak.

³ Prudentzio'ren eraginmena arras aundia izan zan erdiaro guztian-da, aapaldi orren bidetik ibilli zan XIII mendean Celano'ko Tomas bere "Dies irae" ereserki sendoan aapaldi auek sartu zizkigunean:

– Orrela, bat dagite Azkarate'k Gobiaren'en aurkitutako arkeologiaren eta guk emen aztertutako donetegiaren emaitzek, IX mendean liturgiaren aldetik, eta ondorioz kulturaren eta politikaren aldetik, bere sarkaldean Euskalerrria lurralde yarea zala aitortu aal izateko.

– Bigarren eliza egiterakoan, Yon gotzaiak ez digu esaten no;zdandikoak izan zitezkean berak Gobi eta Losa Aranetan birreraiki zituan eliz zar aiek, baiñan garrantzi aundikoa da Oron ibaiaren araneke sei eliz aiek «antiguas», «antziñakoak» zirala, Jon Gotzaiak berak aitortzea.

Orrek, Euskaldun Autrigoein artean IX mendearen asiera ber-berean, 804'ean, kristautasuna zarra, ots, «antz;ñako gauza» zala, esan nai bait du. Noizkoa?

Garrantzi aundikoa da baitare, galde orri erantzuteko, 804'eko bi dokumentu auek damaizkiguten Doneen azterketa: Euskaldun Autrigoein arteko kristautasunaren noizkotasuna ez eze, baita nonditikotasuna jakiteko ere:

Ona Li Gotzaiaren eta Erregearen larruki bi oietako Doneen zerrenda:

lurtasun Donearen eta Kristo'ren aipuz landa: («In nomine Patris & Filii & Spiritus Sancti Amen» dio erregeak, eta «Sub Christi nomine & et eius Imperio» gotzaiak, orrela asi oi ziran bá larruki zaar aien idazketa), auek dira bi dira bi dokumentuetako Doneak:

MIREN DONEA
EZTEBE
KEPA ta PAUL

KRISTOBAL
ZIPRIAN
JON
KAPRASIO

EMETER eta ZELEDON
JUSTO ta PASTOR
KOSME ta DAMIAN

Done oiek bi larrukietan datoz, eta oietaz gaiñera, ez dator beste Donerik ez batean ez bestean.

Zer esan amaika Done zar oietaz?

ANDRE MIREÑ NESKUTSA ta Jainkoaren AMA, IX mendea baiño lenago, askoz lenago, kristaudi guztian zan arras maitatua ta txit eraspendua. Dokumentu auetan bi aldiz agertzen da aipaturik:

«... *veni in locum qui vocitatur Vallis posita & inveni ibi Ecclesiam desertam vocabulo Sanctae Mariae Virginis*»: «Balpuesta izen duan lekura etorri nintzanean, Miren Neskutsarena esaten zitzaion Eliza aurkitu nuan, ondatur;rk, bertan», diosku gotzaiak; eta erregea «*ad Ecclesiam S. Mariae de Valleposita*», «Balpuesta'ko Miren Deunaren Elizari» dagizkion emaitzetaz mintzatzen zaigu.

Bai erregeak eta bai gotzaiak aipatzen dute berriro Donemiren Neskutsa. Oraingoan toki-izen bezala: «*De Reianta usque ad S. Mariam subtus carre-ram*»: «Reanta'ik bidepeko Donemiren'erañño», erregeak. Berdin gotzaiak, baiña «Reianta»ren ordez «r» txikerraz eta «i»rik gabe «reanta» idatziz.

Zarra zan IX mendearen asierarako Gobiaren'go Andremiren Neskutsaren eliz ura; ondatur;rk zegoan, eta orregaitik gurteta-leku bezala erabiltzez utzia. Orrek, Euskalerrriko baztar autrigoitar artara ere, kristautasuna goiz iritxi zala esateko ederki balio digu, baiñan ez digu balio kristautasun ura Bisigotengandik etorri zitzaigula esateko, Andremari Kristaudi osoan bait zan gurtua.

"Ingemisco tanquam reus; culpa rubet vulcus meus.
Supliacanti parce Deus.

Inter o^yes locum praesta, et ab haedis me secuestra
statuens in parte destra".

"Errudun, negarrez nago, obenak gorri aurpegia.
Eskale oni barka Jainkoa.

Sar nazazu artaldera, antxumeetatik urrunduz,
zure eskubian ezarriz".

KEPA ta PAUL DONEAK: Gauza berdiña esan dezakegu bi Done auetaz: Bi apostolurik garrantzitsuenak ziralako, Bisigoten artean ez ez, Kristaudi osoan izan bait ziran gurtuak. Orregaġtik ainzuzen eman zitzaizen Euskalerrian, soilki Donerik maġteeneġ emandako «Yondoni» titulua, goi-izena; Yondoni Petri, Yondoni Paul.

Oso gutxi dira, soilki Zuberoa'n et Benaparroa'n gorde dan izengoiti aintzatsu orġ euskaldunengandik irabazi zuten Doneak:

3 Goiaingeruak:

Yondoni Mikel, Gabriel, Rafael;

Josu'ren etorreraren aintzindaria:

Yondoni Joan (geienetan Yandoniane);

3 Apostolu bakarrik:

Yondoni Petri, Paulo, Yakobe

Protomartir edo Lenenmartiria;

Yondoni Extebe

4, Euskaldunekin zer-ikusia ĵandako doneak:

Yondoni Bixintxo, Murtuts, Satordi, Marti.

Guztira, AMABI. Kristautasunaren asierarekin loturik dauden aurreneko zortzi aiek aipatzeke, II mendeaz gerozkoak, soilki LAU, eta ez noski kristaudiko lau Donerik ezagunenak. Zergaitik ori? Lau oiek Euskalerrari estuki lotuak egon ziralako, ezpairik gabe.

BIXINTXO, Donebixente, Ueska'ko semea zan, euskalduna zalako, eta Balero Zalduba'ko gotzaiak «*ob impedimentum linguae*», ots, berak euskeraz ez zekialako, Dĵakono sagaratu, elizbarruti artako euskaldunen apostolu izan zedin.

MURTUTS edo MURTUX, Fructuoso Tarragona'ko Gotzai Doneari euskaldunek ipiñitako izena. III mendearen erdian, Euskera Lurrat'ltxasoraiño insten zalarik eta Gerona ta Ausona (Vich) euskaldunak ziralarik, eta inguru aġetako beste gotzairik ezagutzen ez dalarik, bera bait zan Euskaldun askoren gotzai bakarra.

SATORDI edo XATORDI, Tolosa akitaniarreko gotzaja, napparren San Cernin, españiarren San Saturnino. III mendearen erdikoa au ere, Yondoni Murtux bezala, eta III mende artan euskera Tolosa'ko kaleetaraño insten zitzaġolako Euskalerriarren zati eder baten gotzai izana. Kondairak gorde du Naparroa'n ark euskaldunen artean egindako ebangelizaketaren berri. Kondairak ez dirala edesti? Ez, baiñan izan oi dute egjaren gunea, eta Yondoni Xatordi'ri-buruzko kondairak egiazko gunerik izatekotan, gune ori aren euskaldunen arteko ebangelizaketa, dala zalantzarik gabe esan daiteke. (Ikus punttu au nere «Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza»n).

MARTI edo Martti. IV mendearen bigarren erdian Turona (Tours)'ko gotzai izan zan. Orduan asi ziran Kristaudian parrokiak sortzen. Aġnzuzen bera izan zitzaigun sorketa orren eragillerik aundiena Sarkaldeko Kristaudi osoan. Aundia izan zan mixiolari lez ere; bai bere beraren ekintzaz bai berak irasitako lekaidetxeetako lekaideen ekintzaz ere. Eta orduan Garona'ra ziur eta agian mendiz eta basoz baita Dordoña'ra ere insten zan Euskalerria ez bait zegoan Turona'tik gaurko au bezain urruti, oker ibiltzeko bildur aundirik gabe esan daiteke, Yondoni Martti'ren ekintza iritxi zala antziñako euskaldunen artera.

Ori adierazi nai dula dirudi Yondoni Martti tUronatarrak Euskalerrian beste Doneek baiño, askoz, eliz, baseliz, eta elizetako aldaire geiago izateak.

Konpostela'ko Yondoni Yakobe'renganako erromesek ekarria dala, esan oi da euskaldun zarrek Yondoni Martti'ri izan zioten jaiera arrigarria.

Ez da egia. Erromesen Konpostela'rako joera X mendeaz gerozkoa da; XI'ean asi zan indartzen, XII'ean artu zuan egiazko indar beta.

Lenago, ordea, BEDERATZIGARREN MENDEAÑ, aztertzen ari geran dokumentuok irakasten digutenez, beste done guztiak baiño gurtuagoa zan Turenako Yondoni Martti. Ez da egia, beraz, gurketa ori Frantziatik erromesek ekarria danik. Askoz leenagokoa bait da. Yondoni Martti'k, bere beraren ekitez edo bere lekaidex mixiolarien ekitez Euskalerrri Zar edatsu arekin garrantzi aundiko zer-ikusirik izan zualako siñale bikaiña.

Arritzekoa da Pierre Narbaitz bezalako edestilari izen aundiko batek, zeñen motz etsitzen dituan Tolosa'ko Yondoni Xatordi eta Tarragona'ko Yondoni Murtux:

«*Es raro que la dicha forma onomástica 'más noblei, (Yondoni). nunca ha sido aplicada a san León, que dicen primer obispo de Bayona y si a un oscuro Yondoni Satordi y a aun al más oscuro Yondoni Murtuts (o Fructuoso de Tarragona)*»

«*Asi tendria San Leon menos fundamento histórico que San Cernjn de Tolosa y también de San Vicente de Dax o Saintes?*»⁴.

Barka bezaigu beste mundutik Pierre edestilari txit aipatuak, baiñan, Euskaldunek Yondoni Bixintxo izendatutako martiria, ez da, berak uste duan bezala «San Vicente de Dax o Saintes» zearo ez ezagun ura, beste Bixente bat baizik: Prudentzio'k ain ugari aipatu eta ain ederki abestu zualako mundu guztian bereala ospetsu egin zan Ueska'ko Bixente euskotarra.

Beste ura, Akize'ko edo Saintes'ko beste ura ezur-ta-aragizko gizasemea dan edo soilk; kondairek sortutako mamu done bat besterik ez dan, ziur jakiterik ez bait dugu.

Bere jena, Akize (Dax)'ko elizbarrutiko «brebiario» edo «orduetako otitzen» liburuan agertzen da, baiñan kondairetan oiñarriturik liburu ortan aren «Passio»a idazti zuanak ere Done orri buruz deus ez dakiala apalki aitortzen digu: «*lo stesso autore confesa onestamente di ignorare tutto sull'epoca, la vita, il nome del persecutore, il modo del martirio e la dignit... del martire*» (Bibliotheca Sanctorum).

A, ta Baiona'ko Doneleon Xatordi ta Murtux'en gaiñean jartzea pentsa ere ezin daitekean gauza da, Akize'ko Donebixente artaz esan duguna ber bera esan bait daiteke, ia-ia, Baiona'ko Doneleon'ez. Ta, oraindik askoz gutxiago pentsa daiteke iñor Xatordi'ri «oscuro» eta Murtux'i «más oscuro» esateko gai izan daitekeanik.

Gaiñera, Yondoni izen aintzagarria daramaten Done guztiak oso zarrak dira, IV mendez aruntzakoak eta, aien aldean aski berria Narbaitz'ek ain maite duan Baiona'ko Leon; egiazko gizakumea izatekotan ere, IX mendekoa bait da, mende ortan, lepoa moztuz, Bikingoek erailla.

YON, (BATAILARIA, seguruaski): Au ere, — «emakumegandik jaiotakoen artean aundiena» ornen dan Yon au ere—, betidanik izan da Kristaudi osoko donerik goretsienetako bat. Euskalerrrian ere irabazi zuan aipatu— berria dugun goi-izena: Yondoniane.

EZTEBE «Protomartir» edo «Leenmartiria»: Euskaldun zarrentzat Yondoni Extebe. Nola ez?, Kristo'ren omenez bere odola isurtzen aurrenekoa izan zalako, Kristaudi osoak eraspandua.

Gaiñera Prudentzio'k bere olerkietan maiz aipatzen duan Donea dugu Yondoni Extebe, eta edestilariarentzat ez da adozer gauza Prudentzio'k aipatua izate ori.

4 (Pierre Narbaitz "La Cristianización del País Vasco-Francés". *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco. Homenaje a D. José Miguel Barandiaran y a D. Manuel de Lekuona. Facultad de Teología. Vitoria. 1981. Orrialdea, 43-68.*

KOSME eta DAMIAN: Sendagilleak ornen ziran; sendaketa doan egin oi zutenak. Jatorriz, Arabi'koak. Arabi'tik Asi Txiki'ra etorri, ta emen Egea izeneko uri batean bizitzen jarri ornen ziran. Beren «Passio» liburua kondairaz lausoturik iritxi zaigu, baiñan kondaira geienek bezala izanen du barruan egiazko edestigune bat.

Diokleziano'ren zigorketakoa, 303'garren urtean il ziran martiri, eta berenganako jaiera arrigarriki eta berealaxe zabaldu zan «mundu guztira «si difusse per tutto il mondo». Nola gaiñera! «Toki askotan bertako seme lez izan bait ziran gurtuak»: «per molti luoghi in misuracos_ larga da farli considerare santi locali» (Azpimarratutako esaldiak («Bibliotheca Sanctorum» iztegitik artuak ditut).

Ikus dezakezenez, Done auk ere ez dira Bisigotiarrek. Gaiñera Donejeronimo'ren Martiritegiko orrietan etorri ziran Galietatik onera.

Zuzenean Itali'tik ere itxasoz etorri zitezkeala? Bai noski, bañan ala izatekotan Euskaldun Autrigotarrengana (Autrigoni'ari-buruzkoak bait dira aztertzen ari geran bi larrukiok), Blsigotak baiño lenago iritxi zirala esan bearrean aurkitzen da edestilaria. Itxasoa-bidezko etorrera ori, Erroma'tik Tarragona'ra, naitanaiez V mendean egiña bear bait zuan izan. Zergaitik?

- Itali ta Ispani'ren arteko arremanak V mendeaz gero la osoki auldu ziralako. Eta ori zergaitik?

- Tarraconesis probintziak —eta probintzi orren barruan zegoan Ego- Euskalerrri guzia— V mendean oraindik Erroma'ko inperatoreen mendean jarraitu zualako.

- Gero, VI mendean Galietatik Ispanietara Bisigotak etorri ziranean, Erroma'rekingo arremanak asko urratu ziralako. Ia osoro, berriz, itxasoa-zear zuzenki egiten ziranak

- Tarrakonesis probintziaren barruan, V mendean, Egouskalerrria Ibero ibaiaren aran luze zabal guztian sendo kristauturik zegoalako, Silbano Kalagurri'ko gotzaia, Askanio Tarragona'ko metropolita, ta Ilario Erroma'ko aitasantua lekuko dirala5.

ZIPRIANO: III mendean Kartago'ko gotzaia, eta Eliz-Aiten artean omenduenetako bat, Kristaudi osoan gurtua izandako Donea dugu. Ez zuan euskaldunengandik Yondoni goiaipurik lortu, baiñan bai maitasuna adierazten duan izen bereizi bat: ZIPIRIO esan bait zitzaion Bardulitarren lurtean, gure Tolosa'ko mendian gurtzen dugun Zipirio ori, Lekuona'tar Imanol'ek nai izan zuan bezala, Kartago'ko Donezipriano ba'da.

Nere ustez, ordea, Tolosa'ko Zipirio ori ederki izan daiteke bertako anakoreta zaar bat, erriak kanonizatua.

Asko ta asko izan ziran f antziña artako Euskalerrri ederrean mendietara baztatu ziran anakoreta edo bakartasunzale penitentzigilleak. Ainzuzen Araba'ko mendietan dago Europa guztiko, bakartien «Goba» edo «Gobi»en, kopururik aundiena. Oraindik ere, Bizkaierako itza erabilliz, toki batzuetan «las Gobas» eta beste batzuetan «las Gobias» esaten die, eskuz irikitako leize-zulo aiei, erriak. Leize-zulo oien izenetik datorkio noski gaztelerazko izena «Valdegovia» berari.

Bestalde, Lekuona'k berak esana da —eta ongi esana nere ustez— gure mendietako done-izen asko erriak kanonizatutako bakarti euskaldunen izenak dirala. Errez sinistu daiteke beraz Tolosa'ko Zipirio ere erriak kanonizatutako bakarti oietako bat izan zala.

Baiña, Lekuona'r jarraituz Zipirio ori Kartago'ko Doneziprian bera dala uste duanari ere ezin esango diogu oker dabillenik.

5 Jardunketa luzatuz mintzatu naiz ortaz nere "Euskal-Kristautasunaren Zabalkuntza" liburuan.

Ori egia izatekotan, kristautasuna Bardulitarren lurrera ere oso goiz sartu zala esan bearke genuke, Lekuona'ren teoria ontzat artuz.

Ona ba jakintsu aundi aren pentsa bidea:

- Titulorik gabe bere izen utsez ezagutzen diran doneen gurraketa, Zipirio'rena, adibidez, euskaldunen artera oso-oso goiz iritxi zala;

- geroago Doneztebe'k eta Donibane'k bezala, Done tituloa aurre-ipiñita agertzen zaizkigunena,

- eta askoz geroago, berriz, San edo Santo aurretik dakartenena.

Ori egia ote da?

Ez dakit.

Baiki, edesti-arazoak ulertzeko Lekuona maixuaren zentzua aundia izan zala ukatzerik ez dago. Baiñan ez da ori naikoa, esan dezakeana egi ziurtzat artu aal izateko. Danadala, Zipriano'tik Zipirio'rako izen-aldaketa bitxi ori bera, antziñatasun aundiaren adierazle dala iruditzen zait neri.

Baiñan izan ote zuan Kartago'ko Ziprian Doneak artu emanik Euskalerriarrekin?

Zipriano'ren ekintza guztietatik, Euskelerrira geiena urbildu zana, Zalduba'ko (Zaragoza'ko) Felix zeritzan kristau bati idatzitako eskutitza dugu.

III mende artan Felix ori Zalduba'ko gotzai zan edo ez, iñork ez daki; baiñan bai III mende artan Zalduba uri eder ospetsua Euskalerrri Zarraren mugamugan zegoala, ipar-sortaldera berealaxe bait zeukan Ueszitarren lurrean Alkubierre⁶ izeneko mendi-lerroa, eta, sarkalderuntz, 25 kilometrora, Jalon ibaiaren ibarrean, orduango «Alauona Vasconum», gaur-egungo Alagon uria.

Orregaitik, III mendean Zalduba gotzai-uri ba'zan, ango gotzaien ardura-pean egon zan Euskalerrri Zarraren zati edatsu eder bat.

Agian Zalduba'rekin arremanak izan zitualako erakutsi zion Prudentzio olerkari baskoi kalagurritarrak Ziprian Doneari — «*ore facundo Cipriane doctor*»

gaiñera, «Peristefanon» deritzan poemako XIII abesti osoa eskeiñi bait zion, «*Passio Cypriani*» izen-buru ipiñiz.

Ta, Prudentzio'ren olerkiek garrantzi aundia dute, beraietan agertzen diran Doneen ezagutzea Españi'tik ez zitzaigula etorri jakiteko.

Alderantziz, lotsarik gabe esan dezakegu, bere errian, ots, Euskalerrri, Prudentzio'ren olerkiak Españi'n baiño leenago ezagutu zirala eta bearbada Euskalerritik zabaldu zirala Españi'ra.

V mendean —Españi Suebiar eta Bandaliar eta Alaniarren menpean zegoan bitartean— Euskalerrri Tarrakonensis Probintziaren altoan zuzenki Erroma'ko inperatoreen esanera egon bait zan. euskaldunen kristautasunari dago-kionez, Akitani'n ez ez⁷ Ibero ibaiaren lurraldeko Baskoi, Berondar eta Autrigoi-tarren artean III mendeaz gero sarturik, IV'ean tinko erroturik eta V'ean zearo zabaldurik eta erakunde biurturik bait zegoan Eliza. Lekuko

KRISTOBAL: Martiria izan ornen zan. Edestia baiño geiago dira kondaira, —kondaira utsa gaiñera— «narrazioni intessute (beteak) di episodi fantastici, da spingere (bultzatu) qualche (edozein) critico a dubitare della reale esistenza de questo martire» («Bibliotheca Sanctorum»).

Alare, badakigu ezur ta aragizko gizakumea izan zala Done au, eta V mendean Nikomedi'n (Kostantinopla'ren aurreko Marmara itxasoaren ertzean) Basilika bat izan zuala bere aintzagarri eraikia. Baiñan beste ezer aundirik eskier ez dakigu.

Kondairek bai, xeetasun ugari badamaikigute kondairek Kristobal'i-buruz.

⁶ Erromateko "Vescitani" edo euskaldun Ueszitarrek bazuten guk "r"z amaitzen ditugun itzei "e" bat erasteko oitura; adibidez Jabierre, Benabarre, Loarre, Alkubierre...

Adibidez, soñez izugarritzko indarra zuan erraldoi aundi bat izan zala, eta ogi-bidez basa-lapurra kondaira baten ustez eta, beste baten ustez «antropofago» edo «gizaaragijalea» zan erri basati bateko gudularia.

Kondairek djoskutenez, ibai zabal baten alde batetik bestera bizkarrean Yosu Aurtxoia eraman zualako egin ornen zan kristau. Ongi ezaguna da gertakizun orij: Muttiko batek dasaio ibaia igaro nai zuala. Kristobal'ek, jostalari, artzen du bizkarrean muttikoa. Gero ta astunagoa biurtzen zaio, ordea, alako muttiko txiker ura, eta ler eginda iristen da oro indarra zan erraldoi ura ibaiaren beste aldera. Orduan azaltzen dio muttikoak bere nortasuna, eta Aren serbitzari biurtzen da Kristobal, eta Aren serbitzari izanez iraungo du III mendearen erdijan, 250'ean, bere bizia martiri eman arte.

Ez du Prudentzio'k abesten baiña Jeronimo'ren Martiritegian dator.

EMETERIO eta ZELEDONIO: Gudari izanak. Kristauak ziralako, ainzuzen, Galerio'k gudaroztea atzerrikeriz garbitzeko eman berria zuan legearen araura gudaroztetik jaurtiak eta kristau jarraitzen zutelako Kalagurri'n martiri eraillak III mendeko azken-urteetan.

Kalagurri'koak zirala uste izan da. Azkenaldi ontan ordea azaldu zaigu norbait, gudariak ziralako ainzuzen, ez zizala Kalagurri'n jaioko izango, esanez. Zor zioten leialtasuna urra zezaiketean bilduriez ez ornen zituan la Erroma'k probintzietako gUdari-taldeak tokian-tokiko gizasemez osatzen.

Oker dabil; Diokleziano'k Galiano albo-inperatore izendatzerako atzerriarrez beterik bait zegoan gudaroztea, eta guda buruen —eta azpiko agintarien artean bereiziki— atzeritarrak, barbaritarrak, bait ziran asko ta asko.

Gaiñera, Kalagurritarrak izanik, Emeterio ta Zeledonio ez ziran atzeritarrak, Erroma'ren inperiotarrak baizik, eta III mendean Erroma'k ez zuan bere probintzietan inor askatasunaren alde jeiki zitekealako bildurrik, eta leialtasunari dagokionez, zizur egon zitekean kalagurritarren leialtasunaz, Kristo jaioko baiña la mende bat ezkeror Sertorio'ren gudua bukaturik, inperio-lur guztian ospetsua bait zan Kalagurri'ko Baskoien leialtasuna.

Ez dago beraz jaiotzaz kalagurritarrak ez zirala esateko arrazoirik. Endaz Baskoia ote ziran? Bai, seguruaski. Bein baiña geiagotan esan izan dedan lez, Kalagurri'n ez bait zan Erromatar askorik bizitu. Bai ote ziran elez euskaldunak. Zergaitik ez? III mendean Kalagurri'n Euskeraz itzeringo zala esateko, gure alde ditugu logikaren aldetiko arrazoi guztiak. Ori uste aal izateko, euskerak Ueska'n noiz arte iraun zuan oroitzea naikoa dugu.

Nola ez? Bera ere kalagurritarra zalarik oparo goraldutuan bi gudari kalagurritar auek Prudentzio olerkariak: Ainzuzen Peristefanon poemaren I abesti luze bikaiña beren gorapuz idatzi zuan. Ikus nolako izenburu dotorea daraman ereserki polit orrek: «*Hymnum in honorem Sanctorum Martyrum Emeterii et Cheledoni calagurritanorum*»:

Ona nola amaitzen duan ereserki ori aapaldi politaz, bi martiriek egindako mirari ugariak aintzatuz gero:

State nunc, hymnite, matres, pro receptis paruulis
coniugum salute laeta uox maritarum strepat.
Sit dies haec festa nobis, sit sacratum gaudium»

Euskeraz

Ea bá! Zut!, ama zeratenok! Jo eresi, artutako semeak eskertuz.
Entzun bedi emazteen abots alaia osatutako senarren oroiz.
Izan bedi au jai-egun guretzat gure poz au sagara dezagun.

Eta ori naikoa ez ba'lu bezala, poema orren VIII ereserkia Bi martiri aiek il ziran tokian kalagurritarrek eraiki zuten Bataitegia goresteko idatzi zuan: «De loco in quo martires passi sunt nunc Baaptisterium est Calagurri»

«Electus Cristo locus est, ubi corda probata
prouehat ad caelum sanguine, purget aqua».
Hic duo purpureum Domini pro nomine caesi
martyrium pulchra morte tulere viri»

Euskeraz

«Len odolak eta orain urak garbitutakoak zeruratzeko,
au, Kristo'k aukeratutako tokia dugu.
Emen, bi gizaseme, Jaunaren izena goretsiz, odolezko
eriotz ederrez il ziran martiri».

JUSTO eta PASTOR: Auek bai, auek españiarrak dira. Madrid'ko Alcalde Enares'en jaiok, Mutilkoskor zirala Diokleziano'ren zigorketa-aroen martiri eraillak. Ez da, beraz, arritzekoa bien izenak Bisigoten santutegian agertzea.

Orrek, ordea, ez du esan nai beraienganako eraspina Bisigotengandik etorri zitzaigunik. Alderantziz, baditugu arrazoi bi, Bisigotak Españi'ra etorri aurretik, done oiek Euskalerrian ezagunak zirala aitortu aal izateko:

—Bata, bi Done oiek Martiritegi Jeronimiarrak gogoratzen dituala. (Eliz Zarreko Martirien edestia laburki emanez eraturako liburuak dira «Martirologio» edo «Martiritegiak». Ta, Jeronimo Deunarena esaten zaionak naiz aren izena eraman, Jeronimo'k idatzia ez da. Sortaldean izan zan idatzia, eta andik Itali'ra, Itali'tik Frantzi'ra eta Frantzi'tik Españira jgaro zan'.

—Bestea, Justo eta Damian Prudentzio'k abesten dituan Doneak dirala.

Laugarren mendekoa izan zan Prudentzio, eta bosgarrenaren asieran, (405'ean) argitaratu zituan bere olerkiak. Bera da, Elizak aro artan izandako olerkaririk onenetako bat. Baita onena ere, ezpairik gabe.

Bere olerki-lanik ospetsuena seguruaski «Peristefanon» («Koroiaketa») ize-neko poema da. Poema ortako, laugarren abestian aipatzen ditu Justo ta Pastor alkatarrak. Ikus nola:

Abesti ortan, Zalduba'ko «*bis noven*» («bi aldiz bederatz»), ots, «emezortzi» martiriak ditu abesti-gai:

«*Bis noven noster populus sub uno
martyrum seruat cinere sepulcro.
Caesaraugustam uocitamus urbem
res cui tanta est*».

Euskeraz

7 Ikus zer idatzi nuan aipatutako liburu ortan, martiritegi oni-buruz: "Antziñatean izen aundia irabazi zuan "Done Jeronimo"ren Martiritegiak. Kristaudiak ordurako omentzen zituan Donerik ospetsuenak bilduz, idazle ezezagun batek IV mendearen Erdiko urteetan Nikomedi'n idatzia izan zan; ele-neraz. V mendearen lehen erdian, Ipar-Itali'n beste ezezagun batek, Erroma'n eta Afrika'n ospatzen ziran martiririk ospetsuenak erantsi zizkion; eta laterara itzuli. Era ortan osoturik, izugarritzko arrakasta izan zuan Sarkaldean, eta bereala zabaldu zan, Itali'tik, alde auetako Elizetara.

*Illobi bat berean gordetzen ditu gure erriak
emezortzi martirenen autsak.
Zesaraugusta esaten diogu orrelako aberastasunaren
jabe dan uriari.*

Baiñan «bis noven» ziñopa oien goratarrea egiten asi-aurretik, Sarkaldeko uririk ederrenak aurkezten dizkigu bakoitza Kristo'ri bere martiriak eskeiñiz. Ona Alkala'ko bi mutikoei dagokien aapaldia:

*«Sanguinem Justi cui Pastor haeret
ferculun duplex geminumque donum
ferre Complutum gremio iuuabit
menbra duorum».*

Euskeraz

Alkala'k bere altzoan alaitu Justo'ren
— eta arekin batera Pastor'en —
gorpuzkiak ekarriko ditu; bien illobiko autsak;
altxor bakoitza.

Prudentzio baskoiaren olerkiak bereala zabaldu ziran latinez mintzatzen zan Eliz osora, ots, Sarkaldeko Eliz guztira, eta, nola ez? baita seguruaski, orduan Auñamendiaren alde bietatik ain edatsua zan Euskalerri Zarreko krjstauen artera, VI mendean Bisigotak Españi'ra etorri aurretik. Auek, 507'garren urtean etorri ziran Frantzi'tik, Frankiarrengandik igesi, aien aurka Veüllé'ko borrokaldia galduz gero.

Orregaitik iñondik iñora joatekotan, Justo eta Pastor'enganako eraspina, emendik zabaldu zala bisigotengana esan bear ko genduke, eta ez aiengandik onera8.

Prudentzjo, jaiotzez, kalagurritarra izan zala, esan dugu. Ori ez du gaur iñork ezpaiean ipintzen; alakoa bait da Kalagurri'z mintzaterakoan agertzen duan uri arenganako maitetasuna. Egia, ikusi duzun bezala, Zalduba'ri ere «gure arria» esaten diola. Ez nago ziur, baiñan badut zalantza ez ote dion era berean beste nonbait Tarragona'ri «gure erria esaten...! Eta baita agian Erroma'ra ere.

Ez du orrek ezer aundirik esan nai:

Alde batetik, Prudentzio, dirudianez, Zalduba'n bizitu zalako eta bear ba'da olerki ori an idatzi zualako:

Beste aldetik, naiz kalagurritarra ta baita seguruaski baskoia izan, gure beste uri zar aietako gizon eskolatuek bezala arras erromartutako gizakumea, eta ondorioz Erroma'ko Inperiotzaren maitale sutsua izan zitaigulako.

Erromartasun orren ondorioz, Zalduba, Tarragona, eta Erroma, Inperio Done aren uririk garrantzitsuenak ziran beretzat: Erroma, jakiña, Imperio osoa-

8 Zalduba'ko martirientzat idatzitako ereserki ortan, seguruaski euskalduna izandako Done bat ere aipatzen du Prudentzio'k. Ueska'n jaiotako Bixente Martiri Donea. Naiz Balentzi'n eraila izan, aurretik Zalduba'n izan bait zan oiñazetua. Aipu ortaz landa ereserki oso bat ere eskeiñi zion: Poemaren V: "Passio Sancti Vincenti Martyris". Zalduba'ko 18 martiri aien artean ere, ¿bateren bat ez ote zan euskalduna? ain bertan bait zegoan, Zalduba'ren arresietatik, Euskalerriaren muga...!

ren eta, une berean, Elizaren burua zalako; Tarragona, probintziarena; eta, Zalduna, «curia» edo epaiketa-arazoetako Kalagurri sarturik aurkitzen zan lurraldearen burua.

Kontuan euki bearra da gaiñera, Prudentzio'k olerki oietako batzuk liturgian abestuak izateko idatzi zituala. Ez da beraz arritzekoa, adibidez zaldubatarrek edo tarragonatarrek abestu bear zituzten ereserkietan Zalduba'ri — eta Tarragona'ri — «gure erria» esaten zaiela ikustea.

Ez ote zan euskalduna, jaio beintzat Kalagurri'n jaio zitzaigun Prudentzio? Galde orri erantzun aurretik beste oni ernan bear diogu erantzuna: Bai ote zan Baskoia?

Bai, nere iritziz. Ez zan beiñere Kalagurri'n erromatar askorik bizitu, erromatarrek Kristo jaio baiño bi mende lenago bertara iritxi ziraneko lenen urte aietan gudarozteko agintari ta lejiolari batzuk izan ezik. Ta, auek ere, seguruaski bertako neskatil baskoi pinpiriñekin ezkonduko ziran!

Gerontzean ez duzu idazle klasikoetan Kalagurri'ko erromatarren aipurik aurkituko. Alderantziz, beti, Kalagurri'ko Baskoietaz mintzatuko zaizkizu.

Bapo! Bañan, bai ote zan euskalduna gure olerkari ospetsu ura? Galde bera egin dezakegu I mendean bizitutako eta jaiotzaz au ere kalagurritarra izandako Kintiliano'ri-buruz. Ueska'n XIV mendean euskeraz itzegiten zala, ziur badakigu. Uste izatekoa da I'goan, eta IV'ean berdin, Kalagurri'n ere eginen zala euskeraz, eta Kintiliano ta Prudentzio ere euskeraz itzegin aal izateko gai izango zirala. Edota, gaur egungoei bezala, orduango gizakume euskaldun aunditsuei lotsagarri gertatzen ote zitzairen beren buruak euskaldun agertzea?

Kalagurri seguruaski orduan gutxienez elebiduna zalarik, badaiteke, jatorriz seguruaski baskoiak ziran bi elerti-gizon erraldoi aiek ere, beren jaiterria bezala beraiek ere elebidunak izatea. Gai ortaz geiago esaterik ez dago.

Eta orixe bera esan bear dala derizkiot «Peristefanon» deritzan poema ortan Prudentzio'k abesten dituan Zeledon eta Emeter martiri doneetaz. Eta ori bera esan dezakegu, agian, poema bereko Felis geronatarra eta Genes narbonatarraz. Kalagurri bezala Gerona ta Narbona ere, elebiko uriak bait ziran seguruaski IV mende artan.

Entzun Prudentzio'ren abeskera:

*«Parva Felic s decus exh bibit
arctubus sanctis locuplex Gerunda;
nostra gestabit Calagurris ambos
quos ueneramur»*

Euskeraz

Felix'en edertasuna aurkeztuko du
Done-erlikiz aberatsa dan Gerona txikiak.
Gurtzen ditugun biak oroiteraziko ditu
gure Kalagurri'k.

*«Barchinom claro Cucufate freta
surget et Paulo speciosa Narbo;
teque praepotens Arelas habebit
Sancte Genes*

Euskeraz

Kukufate dizdiratsuz arro jeikiko da Bartzelona.
Berdin Narbona bikaiña bere Paulo'rekin,
eta Arelate indartsuak zu, Donegenes,
ekarriko zaitu.

KAPRASIO DONEA: Arrigarri gertatuko zaizu bearbada, baiñan Done au Euskalduna izan zitzaigun seguruaski. Garona ibaiaren ertzean dagoan eta gaur Agen eta orduan AGINO esaten zitzaion urikoa bait zan.

Agino'ko martiririk ospetsuena «Sancta Fides» edo Donesinismen izeneko neskatil maitagarria dugu. Euskalduna bera ere seguruaski. Ainzuzen Donesinismen orren ingurukoak dira beste iru aginotar martiri: aipatutako Domekprasio eta Primo ta Feliziano Doneak.

Piztu-berria zan IV mendearen astapenean Diokleziano inperatorearen kristau-zigorketa. Agino'n Fides neskatilla izan zan aurreneko martiria. Espetxean gogorki oiñazetua izan ondorean lepoa moztu zioten bere kristautasunari ukorik egin nai izan ez ziolako.

Ainzuzen zigorketari iges-egitearren leiza batean izkutaturik ornen zegoan Kaprasio. Bañan Sinismen Donea espetxean jasatzen ari zan nekaldi gogorren berri izan zuanean, aren oiñazeeen partaide izan nairik, eta zerutiko mirari batez indarturik, Daziano Jaurlearen aurrera aurkeztu ornen zan, bera ere kristaua zala oi u eginez.

Jaurleak, oraindik espetxean ziraun Fides neskatil Donearekin erabillitako jardunbide bera birr-erabilli ornen zuan Kaprasio'rekin: lo-sintxakeri aunitz eta eskeintza guragarriak aurrena, baiñan, gero, Kaprasio'k amorerik ematen ez ziola ikustean, oiñazeketa gogorren ondorean lepoa moztuzko eriotza.

«Mentre il martire era torturato, si convertirono due fratelli, Primo e Feliciano que insieme con Fede e Caprasio furono decapati» (Bibliotheca Sanctorum).

Beraz, iztegi italiar aundi orrek dioskunez, Kaprasio'ren oiñazeketa ikustean, kristau egin ziran Primo eta Feliziano anai biak. Eta azkenik, Fides Due-narekin batera izan ziran —biak eta Kaprasio— lepotik ezpatatz moztuak.

Kaprasio'ren bizitza, garai zaar aietako beste doneen bizitzak bezala, kondairaren lorez beterik iritxi zaigu. Alare, ezin ukatu lore olertikoi guzti oien azpian egiazko gune bat badagola. IV mendean, Turona'ko Gregorio'k bere bi liburuetan aipatzen digu Kaprasio Donea: «Historia Francorum» deritzanean eta «In Gloria Martirum» izenekoan. Badatorkigu Martiritegi Jeronimiarraren orrietan ere.

Ezin esango dugu noski done au Bisigotengandik etorri zitzaigunik...!

BUKATZEKO: 804'eko bi larrukietan agertu zaizkigun Donei-buruzko atal au bukatzeko, ema'itzegun onako oartxo labur auek:

- Done oiek danak, Justo ta Pastor espainiarrak eta Emeter eta Zeledon euskaldunak izan ezik, Sortaldetarrak dirala danak.

- Kristautasuna Sortaldetik etorri zala Sartaldera, eta erlijio ortako Doneenganako eraspina ere bai. Ala, aztertzen ari geran gure bi larrukiotako Doneenganakoa ere, Emeter eta Zeledon eta Justo ta Pastor'enganakoa izan ezik.

- Etorrera ori, IV mendeaz gero bereiziki, Doneenganako jaiera Eliza-baitan indartu zan ezkerro gertatu zala.

9 gazteitz'en ikasi zuten gure apaiz jaunak oroituko dira noski. Abesti orren aapaldiak "saficus primus" izenekoak dira, iru "safiko'z eta "adonio" batez eratuak. Aapaldi oietan aipatzen diran uñetatik batek bakarrik bearko du argibidetxo bat: Arelas'ek. Gaur Arles esan oi zaio. Erromarrek "Civitas Arelatensis" esan zioten, ots, "Uri Arelatetarra", edo "Arelate'ko Uria". Rodano ibaia Lurrat'Itxasora (Mediterran Itxasora) urbiltzen dan tokian dago. ARELATE itzak, ordea, ezpairik gabe badu izan daitekean euskal-itxurik nabarmenena.

—Lurrez egin zala: Sortaldetik Itali'ra, Itali'tik Frantzi'ra, Frantzi'tik Españi'ra. Naiz itxasoz ibilli oi ziran salerosleak ere ebangelio-ereille bikaiñak izan. VI mendean, esan dugun lez, ia ezabaturik gelditu ziran Tarragona eta Erroma arteko itxasontziketak.

—Emeterio ta Zeledonio eta Justo ta Pastor ez zirala sortaldetarrak. Baiñan Prudentzio'k abestu zituala! Eta Jeronimo'ren martiritegian agertzen dirala.

—Bi Larrukiotako beste Done guztiak ere abestu zituala Prudentzio'k, bat, Kristobal, izan ezik. Baiñan, au ere, Jeronimo'ren Martiritegian badatorrela.

—Bi larrukiotako Done danak aipatzen dituala Martiritegi orrek.

—Done oietatik batzuk (esan dugu nor) Euskalerrian Yondoni goi-izen goxo, aintzagarriz jantziak izan zirala, eta izengoiti jator ori antziñatasunaren adierazle ziorra dala.

ONDORIOZ: Done-izen oiek ez daitezkeala erabilli Euskalerrriak aurrena Toledo'ko Bisigoten LITURGIA eta, gero, Bisigot ajen seme izandako Mozarabeena erabilli zuala esan nai izateko.

Bereiztasun ori VI, VII, VIII eta IX mendeetako Euskalerrriaren nortasun sendoaren eta kulturaren aldetiko eta politikaren aldetiko askatasun osoaren adigarri zorrotza dugula.

—Zer liturgi erabilli zuan mende aietan Euskalerrriko Elizak? Artu ba'zuan noiz artu ote zuan Mozarabitarrena?

Erantzun zailleko galderak biak; batez ere aro antziñatsu artako Euskalerrri Zarra zeñen zabala ta luzea zan gogora ekartzen ba'dugu.

Alare sartu bearko diogu noizbait ortza ezur gogor eta agorakaitz orri.

Baiñan arazo ori dana Aldizkari oni baiño geiago dagokiola derizkiot «Euskal-Kristautasunaren Sendokuntza» izenez argitaratzeko gertutu nairik nabillen liburuari.

«Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza» eta Euskal-Kristautasunaren Zabal-kuntza» izenekoen ondorean bera izango bait da, Euskalerrri Zarreko Elizari-buruz nere irugarren eta azkeneko Liburua.

Latiegi'tar Bixente.

GURE IRAKURLEEI

"EUSKERAZAINTZA" argitaratzen asi giñanetik, 1.987 urtetik, esku zabalez bialdu izan dogu gure aldizkaria.

Zoritxarrez gure gurariak jarraipen onik euki leiken itxurak ez dira onak.

Origaitik gure irakurle ta adiskideei adierazten gatoz, tartetan, aldi oparoetan, gogoratu daitezala EUSKERAZAINTZA'rekin. Artu geinken laguntza aldizkariaren jarraipenerako izango da, edozetara ere guztion mesedean.

Eskerrikasko.

KARDABERAZTARRAK ETA EUSKERAZAINZA

Erakunde jatorra izan da "KARDABERAZTARRAK" deiturakoa.

Lenengo Gasteiz'ko Seminarioan, ango ikasleak borondatez sortu eben "JAKINTZ-BIDE-BATZA" izenarekin.

Eta borondatez sortzen diran erakundeak alperkeri eta nagikeri barik, gogoz eta garrez lanerako gertuten diran lagunak ezagutzen ditue.

Ala On Manuel Lekuona ango irakasle zan denboretan sortu zan taldea, euskal jakintza eta literaturaren arduraz.

Egun baltzetan gertatu ziran guda aurretxoan.

Jakiña da Gasteiz'ko Seminarioari zelako politikari entzutea leporatu eutsen, euskal gaietazko keskaz, denbora libretan, bertako ikasle batzuk, erriko izateari buruzko jardunetan ekiten eutselako. Euskal apaiz izateak eskatzen eutsen betebeartzat artu eben erriaren ezaupide sakonago bat.

Guda etorri zan, ikasleak sakabanatu ziran ta urteak galdu. Geroago apaiz sagaratu... baña bakoitza bere tokietan kardaberaztarren espiriturik ez eben galdu ai izan.

Ostopo eta abar, erakundeak bizi barri eta zabala artu eban, abade eta euren adiskideen artean.

Tolosa'n idazkaritza zabaldua, eta on Manuel Lekuona arduradun nagusi zala, euskal liburuak idatzi ta argitaratzeari ekin eutsen.

Zenbaki onetako beste orrialde baten ikusi leiteke argitaratutako liburuen eta lanen zerrenda ain zuzen euskerearentzat lañoz betetako urteetan.

Baña urteak ez dabe parkatzen.

Gerrate aurreko ikasleak eta apaizak, gaur agure dira ta ez dira danak bizi.

Origaitik Euskerazaintza'ren babesean sartu nañ izan dabe, azken baten Euskerazaintzaren sortzallerik geienak Kardaberaztarrak izan diralako.

Origaitik ezin esan Kardaberaz amaitu danik, beretarrak eta euren gogoak Euskerazaintzan lagunarte zabalago baten biziko diralako.

Urrengo orrietan, Kardaberaz erakundeak merezi dauan omenez, berekiko jakingarri batzuk argitaratzen doguz, geroak jakin dagian lengoak zer egin eta zelan jokatu eben.

KARDABERAZTARRAK

(histori-begiratu labur bat)

Ba zan orduantxe Gazteiz'ko Apaizgaitegian kultura-lanetarako gogo. Republika-aurreko urteak ziran. Ikastola ofizialetan erakusten zanz gain, ikusten zan beste ainbat gauza ere ikasi bearra zegona: —beste ainbat gauzetan trebatu bearra zegola, alegia—; eta, ezarian-ezarian sortzen asi ziran, *privatim docenter-edo* deritzaten oietako zenbait ikasgo, nai zuanak nai zuana aukeratuaz, ofizial-bidetik at zerbaitetan jardun eta trebatzeko. Sortu zan Mixio-gaie-tako Akademiarik; sortu, ideologi-gaie-tarako Gymnasium'ik; sortu zan, bai ta euskal idazleentzako ere exercitatorium deritzaken sail bat: "Kardaberaztarrak".

Orixen izan zan, gure Kardaberaztarren Akademiaren sorrera.

Instituzio oiek etziran goitik-beerakoak izaten; betik-gorakoak baizik. Etziran "ezartzen"; "sortu" egiten ziran: ikasleak berak sortzen zituzten. Ori bai, disiplinaz ala bear-ta, Irakasle baten mendean. Kardaberaztarrak, nere mendean sortu ziran. Bañan au ere bai: ez nik ezarrita; ikasleak berak neri beren asmoak ekarrita baizik; eta gauza, danon artean eratu...

Ofizialez landako gauzak ziranez, Akademi oiek, beti ere, ikaste ofizialari laguntzeko, ikaste ofizialari beaztoparik egin gabe ibiltzeko bear zuten izan. Bañan ola ondo neurtuak izan arren, gogozko erakundeak izanik, oso gogoz artzen zirana ez dago esan bearrik. Oso gogoz artu, eta lana ere gogotik egin.

Gure Akademiaren elburua, egitekoa, esan det: euskal-idazleak sortu eta idazten trebatzea zan. Jakiña: idatziz-ta-idatziz. Aldian bein lantxo bat, bakoitzak al zuan ondoen egiña ekarri bear zuan. Eta, txandan-txandan, astiak agintzen zuan neurrian, gure batzarretan irakurri ta aztertu. Gaia, bakoitzak nai zuana, bakoitzari zerizkiona.

Salla ugaritu zitzaigun berealako batean. Teologoak bakarrik sartzen ziralarik, berrogeitamarretan gora azkar jo genduan.

Olakoxe asierak izan zituan gure "Kardaberatz-Akademiak"...

Gerratearekin il zan... Bañan gaur berriz pizturik, berriro bere burua erakutsi du. Baimen guztiaz orniturik. Egokitasuna, Aita Agustin Kardaberatz'en beraren eriotzako berreun urte betetzeak eman digu.

—Bazkideak? —Asieran giñanetatik oraindik bizi geranok; eta orain berritik sartu nal dutenak gaiñera; eta ez Apaiz geranok bakarrik; baita ez diranak ere.

—Elburua? —Euskeraz idatzi. Orduan ikasteko bezela, gaur ikasteko ta erakusteko... Kristau-pentsamentu jator baten barruan, euskera eder batean idazteko.

On Manuel Lekuona'ren liburutatik.

AITA AGUSTIN KARDABERATZ EUSKAL-IDAZLE

Ekain-illaren 20'an, Loyola'ko Eliz Nagusia izanak gera zor bat ordaintzen. Zor aundi bat, euskaldun guztiok euskal-idazle ospetsu bati geniona. Euskaldun guztiok zordun; A. Agustín Kardaberatz, artzekodun.

Edozeiñek jakin dezake Gipuzkoa'n A. Kardaberatz'en bizitza. Guk aren nortasunaren ezaugarri batzuek ezaguneraziko ditugu gaur, Z. A. ren orriotan.

Gauza jakiña da, Jesuita ernaniar ura, bere baitan mistiko aundi izan zana; Euskalerriko jendeentzat sermolarik bikaña izan zana; idazle aberats ta bero sutsua izan zana. Azkeneko alderdi oni elduko diot nik gaur; eta alderdi ontan, aren idazlan ugarietan ogeitatik bat dan puntu bati: *Euskeraren be^{gi} onak* deritzan Liburu bitxi bati, alegia.

Bañan leenago, ipiñi dezagun, XVIII gizaldiko idazlea bere giro-saltsan.

XVIII gizaldia, "euskal-idazleen" Bigarren Gizaldia izan zan: gipuzkoar-kutsuko Gizaldia, izan ere.

Gure A. Kardaberatz, bere jaiotzean, Euskeraren problematika berezi baten aurrean arkitu zan: Idazle-problematika.

XVI Gizaldian, Bernat Detchepare'k "Euskera: jalgi adi plazara" esan zuan ezker, Euskera leenaz besteko problematika baten barruan sartu zitzaigun. Anartean Euskera "aozko Literaturan", izketa utsezko izaeran bizi izan zan —biziera sendo askoa, ori bai, bai etxe-barruan, bai kalean, bai Elizan—; bañan Bernat bipil ark, enbite ura egin zion ezker, Euskerak "idaz-giroaren "plaza herrira" atera bearra zeukan. Eta eliztar batek XVI Gizaldian egindako enbite arri, XVII Gizaldian beste eliztar a. doretsu batzuek asi ziran-adoretsu erantzuten. Bidasoaz beste aldeko apez-jendeak osotu bait zuten XVII Gizaldiko idazle-sail ura —sail berezia, orain arte izan degun saillik ederrena, Axular aundiarekin.

Urrengo Gizaldia, XVIII'a, gipuzkoarren gizaldia izan genduan: iru gipuzkoar Jesuita izan bait ziran sail berri ura osotu zutenak: A. Larramendi andoaindarra, A. Mendiburu oyartzuarra, eta gure A. Kardaberatz ernaniarra.

Urrengo gizaldia, XIX'a, bizkaitarra izango zan, batez ere: A. Bartolo karmeldarrarekin, eta frantziskotar A. Añibarro ta A. Uriarte'rekin, eta Mogel apaizarekin.

Orra, beraz, bere giro-saltzan ipiñi gure A. Kardaberatz Jesuita ernaniarra.

Bere egitekoa oso ondo bete zuana, ez dago esan bearrik; bere bizitzako ogeitamar urtean idatzi zituan amabostamasei liburuak daude esaten.

Liburu oietan bati —"Euskeraren berri onai"— aztertutxo bat eman nai diogu Z. A. ren orri-alde ontan.

Zer liburu-mueta da gure Liburu au? zer dakar bere 62 orrialde-etan?

Gauza bat aitortu bear degu, asi bañon leenago. Aita Kardaberatz'en Liburuari etzaiela orain arte, gure artean, bear bezelako ixtimaziorik ekarri, erabilzen duten lexikoak erdal-itx askotxo sartzen dituztelako nunbait. Bañan, egia

esan, ori gora-beera, A. Agustin'en edozein liburuk, euskerazko beste libururik ederrenen artean.

Gañerakoan, Liburuaren tonikari buruz lenengo esan bearrekoa, au da: gure Aitaren beste amalau-amabost liburuak Jaungoikozkoak diran arren, au ez dala —onen gaia ez dala— Jaungoikozkoa. Au, Gramatikazkoa eta Erretorikazkoa degu. Gramatika apur, eta Erretorika, apurrago.

Gramatikaz, berriz, auxe degu esan bearrik: Ortografiari dagokion zatian, gure Aitak h'rik ez duala ontzat ematen; ez praktikan erabiltzen, ez teorian ontzat ematen. Orra aren itzak gai oni buruz: "Ken ortik! gure Euskera suabe eztizkoarentzat ez da (h) soñu ori".

Eta Morfologiari dagokion zatian, beste au: ez duala erabiltzen bein bakarrik ere *bait* partikula causal-explicativa dalakoa. Arritzekoa bait da, benetan, idaztean ez erabiltzen ori, bera ernaniarra izanik, eta ernaniar bezela, itz txiki ori berak izketan itzetik-ortzera erabilliko zuan arren. Bestalde, ordea, ez bait da ain arritzekoa, ez Larramendi'k, ez Mendiburu'k berak ere erabiltzen ez duten ezker. Mendiburu'rena batez ere bait da arritzeko, bera, euskeraz oiartzuar-nafarra izanik, eta bere liburuak nafarrentzako ere egiñak. Larramendik, berriz, ez bait du bere Gramatikan aipatu ere egiten partikula txiki ori, beste ainbeste ta ainbeste astiro aztertzen dituan arren.

Gramatika dala diogu gure Aita Agustin'en Liburua; bañan Gramatikaz gañera, ba du beste zerbait ere: Apologia. Euskeraren Apologia bero-beroa dira gure *Euskeraren berri onak*. Liburuaren betiko apeta auxe da: irakurtzaleari, teoriiaz eta praktikaz, buruan sartu, Euskera beste edozein izkuntza bezain gai dala edozein jakintza-gai erabiltzeko, baita gairik meien eta piñenak ere...

Larramendi'ren Gramatika askotan aipatzen du gure Aitak, eta baita gorápatzen ere bere Liburuan; eta bere Gramatika-arauak Larramendi'rengandik artzen ditu; bañan, ori bai, bestelakotasun aundi bat nabaritzen degu bi Gramatika oien artean: bata erderaz dagola eta bestea euskeraz: Aita andoaindarrarena erderaz, eta Aita Ernaniarrerena euskeraz... *Omne tulit punctum*, sinpati-puntu on bat irabazten bait du gai ortan gure ernaniarrak, andoaindarraren aldean, gaur dan egunerako batez ere.

Egia esan, bide ortan —Gramatika-gauzak euskeraz erabiltzen, alegia— izan zuan Kardaberatz'ek nori-jarraiturik. Ura baño leenago ibillia bait zan bide ortan Johanes de Etcheberri saratar medikoa, onek ere latíñez ikasteko Gramatika bat euskeraz egin izan zuan. Bañan, egia esan berriz ere, gure A. Agustin'en ariera askoz maitagarriagoa gertatzen zaigu, besteak latíñarena bezela, gureak Euskerarena egin zualako.

Nolanai dala, bi gidari, bi bide-austalle oiei jarraituaz, gaur esan dezakegu, ez dala jakintza-gairik gure egunotan euskeraz entsaiatu ez danik. Saratarren eta ernaniarraren bideari jarraituaz.

Gure A. Kardaberatz'ek Euskera noraño maite zuan ezagutzeko, ez da

bere *Euskeraren berri onak* irakurtzea bezalakorik. Bañan ez bait da ori bakarrik; beste orrenbeste aditzera ematen dute, berak ogeitamar urtean euskeraz idatzi zituan beste amabost-amasei liburuak ere.

Orain, lan guzti oiek agertzen diguten euskaltzaletasun aundiaren sustraia nun dagon arkitu nai badegu, bere jainkosaletasunean arkituko diogu: antxe asi-ta-buka. Ikasgai ederra bait da benetan: Euskera maite, Jaungoikoa maite zualako; Euskera maite, Jaunak ala agintzen ziolako. Ori garbi erakusten bait du, ez praktikan bakarrik, baita itzez-itz Jaungoikoaren nai ori aitortuaz ere.

Ain xuxen gure Liburu bitxi ontan, 8'gn. orrialdean egiten digu aitorten eder ori: "Askoren animak salbatzeko, Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du".

Itz oiek, ezer bada-ta, urrezko letraz idatzirik ipintzekoak bait lirake Liburu ontan, bañan areago oraindik sakon-sakon ezartzekoak euskaldunen biotzetan. "*Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai*"; eta gañeratzen dituan profetaizak gañera: "*Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, Euskerak iraungo du*"... Gaur dan eguneko euskaltzalerik sutsuenak esan litzazkean itzik beroenak ere ez bait lirake biozkorragoak izango...

Ez bait dira, ordea, edozein euskaltzale berok esandakoak; gizon jainkozko-jainkozko bati, gizon karismatiko bati biotzetik jalkiak baizik.

"Askoren animak salbatzeko, Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai". A. Agustin'en betiko apeta: "Animak salbatu".

A. Kardaberatz'ek beti ere zerua gogoan.

On Manuel Lekuona'ren idaztietatik.

KARDABERAZTARRAK

Jakingarriak

Kardaberaz bazkuna, Gasteiz'ko Seminarioan sortu zan 1.924 urtean.

Ikasleetatik sortu zan, On Manuel Lekuona'ren eskuetara igoaz.

Ikastaro bakoitzak ba zuen bere taldetxoa, Seminarioko orduetatik kanpo euskera ikasteko.

Orrela gogoratzen daki Kardaberaztarren auspo eta idazkari ere izan zan Anes Arrinda'k.

Bere esanetan, urteetara, 1.934-1.935 ikastaroan beste talde zabalago bat sortu zuten: "Yakin bide Batza" izenarekin, Euskadi'ren beste albo batzuek ere ikasteko: Historia, Etnologia, Psikologia Colectiva... euskeratik albo.

On Jose Migel Barandiaran'ek ba zekien gauza auen berri, baña Eskarzaga (Eduardo) Erretore jaunaren baimena bear genduan. Arengana joateko Txomin Irigoien eta ni prest geuden.

Baimena pozik eman zigun.

Euskera eta Historia On Manuel Lekuonaren esku (an izan zitun bere sus-traiak Mañarikua jaunak) eta beste bi gaiak On Jose Migel Barandiaran'en eskuetan.

"Yakin Bide Batza" Teologian sortu genduan, baña kardaberaz filosofian ere ba zan eta an zebiltzan Jose Mari Arizmendiarieta, Albisu, Sukia (Aingeru) eta abar.

Eskuetan daukagu Yakintza-Bide Batza'ko Euskaltzaleen Agiri Idaztia, 1.934-1.935 ikastaroari dagokiona, On Manuel Lekuonaren ardurapean.

1.934-1.935

Urte onetan irugarren mallako bazkideak oneik ziran:

4'go Urtziztikoak (Teologia)

Andonegi A. jauna.
Añibarro jauna.
Etxeberria J D. jauna.
Loidi jauna.
Sagarna jauna.

2'go Urtziztikoak (Teologia)

Abaunza jauna.
Arostegi jauna.
Arrinda jauna.
Arruti jauna.
Solozabal jauna.
Sukia, Jose Mari jauna.

3'go Urtziztikoak (Teologia)

Amutxategi jauna.
Irigoyen jauna.
Irasuegi jauna.
Plazaola jauna.

1'go Urtziztikoak (Teologia)

Albizuri jauna.
Ansorena jauna.
Barruetabeña jauna.
Bilbao jauna.
Berrondo jauna.
Garamendi jauna.
Jauregi J.L. jauna.
Goikoetxea M. jauna.
Zuloaga jauna.
Lekuona jauna.

YAKINTZA-BIDE BATZA

1.— 1.934'ko Azaroaren amarrean kardaberaztar irugarrengo mallako bazki-deak Idazkari jauna buru zutela Aula-magnan batu ziran.

Baskide berriak ontzat artu zituzten ta urrengo egunean bazkide berriekin berriro batzarra egingo zutela ta beste gabe banatu ziran.

Diodan au egia dalako zin egiten dot.

Arostegi tar Jokin.

2.— 1.934'ko Azaroaren amaiketan Kardaberaztar irugarrengo mallekoak Idazkari jauna buru zutela, Aula Magnan batu ziran.

Otoitz txiki bat egin ondoren, Idazkari jaunak bazkide berriak agurtu zituan.

Gero, aurtan zer lan egin zezakegun adierazi zuan Idazkari jaunak, eta baita ontzat artu ere bere iritziak gañerako bazkide guziak. Asmo oiek artu ziran.

1) Arozenaren irakurgaiak euskeratu.

2) Orixe'ren lapurdierazko liburu bat naiz bizkaierara, naiz gipuzkeraz ipini.

3) Yakintz gaizko itzak bildu.

5) Maiatzean atera genduan euskal galdera alik ugari erantzuna eman.

6) Gure lendakari jaunaren bertso zarrak fitxetan ipini.

Eun laurleko ere bagiñetuala ta 75 laurleko euskal sariketa batian banatze-ko asmoa artu genduan. Iritzi ta eztabaida ugari izan ziran sari banaketa au egiteko.

Azkenik era onetan egin zan konponketa: 20 laurleko irugarrengo mallako kardaberaztarren jakintz gaiko irakurgai onenari.

15 laurleko irugarren mallako kardaberaztarren eleiz ta jakin gaiko irakurgai onenari.

Amabosna laurleko beste edozein mutillen jakintz gai ta elerti gaiko irakurgai onenari.

10 laurleko euskaldun berrien lan egokienari.

Azkenik 25 laurlekokin gastu txikiak ordaindu ondoren, euskal liburutegia jartzeko asmoa artu zan. Liburutegi onetan euskal liburu ta euskal gaiezko erdal liburuak jarriko zirala esan zan. Ta ainbat laisterren liburutegiak indarra artu dezan, liburu billa asteko asmo sendoa artu zan.

Esanak esan ta otoi alditxo batekin egunekuak egin zuan. Ta guzi au egia dalako zin dagit.

3.— Abenduko illaren amairuan, idazkari jauna buru zutela, aula magnan batu ziran irugarren mallako kardaberaztarrak.

Lenengoz euskal sariketak gora bera izan zan jarduna. Azkenik erabaki au artu zan:

20 laurleko irugarren mallako kardaberaztarren jakintz gaiko irakurgai onenari. 15 laurleko elerti gaiko irakurgai onenari. Mendibururen idazti bat beste edozein mutillen jakintz gaiko irakurgai onenari.

15 laurleko ere bai beste edozein mutillen elerti gaiko irakurgai onenari.

10 laurleko euskaldun berrien lan egokienari.

Goitik bera ezin leike jo, baña bai betik gora. Au da irugarrengo mallakoak ezin lezateke bigarrengoen saririk irabazi, bai ordea bigarrengoak irugarrengo saria.

Beste erabaki batzuek ere artu ziran: Arozena'ren idaztitik ille bakoitzean lau orri gutxienez euskeratu bear zirala; ta jakintz itzak illero idazkari jaunari eman bear zitzaizkiola.

Gure aurretikoak jasotako jakintz itzak lendakari jaunari eskatzea ere ontzat artu zan.

Beste gabe ordukoak egin zuan.
Ta guzi au olantxen dalako zin dagit.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

4.— 1935'ko urtean Ilbeltzaren amairuan Lendakari jauna buru zutela, bere gelan batu ziran Arozenaren edesti euskeratzalleak.

Lenen Lendakari jauna mintzo zan. Araudi batzuek azaldu zituan Arozenaren edestia euskeratzeko. Erderaz irakurritakoa ondo gogartu, azkatasun aundiarekin euskeratu, motx idatzi t.a. Irakurri zuan berak euskeratutako zatitxoa ta baita bere ondoren Ansorena jaunak ere berea.

Alik eta aguroen euskeratzeko asmoa artu zan Arozenaren idaztia; al ba zeinkean, Epaillaren asierako.

Urrengo igandean berriro batuko zirala ta ordukoz banatu ziran.

Ta guzi au diotan bezela delako nere izen abizenak ementxen ezartzen ditut.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

5.— Milla bederatzireun ta ogeitamabostgarren urteko Ilbeltzaren 18'an Idazkari jauna buru zutela, arratsaldeko ordubatean egin zuten beren batzarra kardaberaztar irugarren mallekoak.

Euskal sariketa gorabera izan zan jarduna:

Sariketa filosofi ta teologo guzientzat izate eskeroz, Erretorearen baimena bear zala adierazi zuan Idazkari jaunak.

Gero gauz ontan erabakiren bat artu biartzela ta ondorengo iru iritzi auek aukeran jarri zituan:

1.—Sariketa folosofo ta teologo artean egiteko, Erretore jaunari baimena eskatu.

2.—Teologoentzat bakarrik sariketak ipini.

3.—Saturraranerako utzi sariketa.

Batzarreko guziak irugarrengo iritziaren alde geratu ziran.

Besterik gabe otoi alditxo batekin egunekuak egin zuan.

Ta guzi au diotan bezela dalako, ara emen nere izen abizenak.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

6.— 1.935'ko Ilbeltzaren 27'an, Lendakari jaunarekin zuten beren batzarra Arozenaren eusko edesti euskeratzalleak.

Lenen Amutxategi'tar Andoni jaunak bere lanaren ulerkaitz batzuek azaldu ari zizkan Lendakari jaunari.

Ondoren Irigoien dar Txomin'en lanaren zati bat irakurri zuan Lendakari jaunak. Lan au zalata oar batzuek egin zizkigun Lendakari jaunak: euskal belarrietzat ez dirala askotan egokiak erderazko irudiak, orregatixe askatasun aundi bear genduala gauz auek euskeratzean t.a.

Azkenik Añibarro jaunak irakurri zuan bere lan pusketa; ta batzarreko guziak goratu zuten bere lantxoak.

Ordukoz bereak egin zituan Batzarrak.

Ta guzi au olaxen dalako, nik nere eskuz izenpetzen det.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

7.— 1.935'garren urtean otsaillak iru zituala Lendakari jaunarekin batu ziran Arozena jaunaren Edesti euskeratzalleak.

Lenen Sagarna jaunak Iñaki ta Xabierren bizitzako zerbeit irakurri zuan. Bere lantxoaren geiegikeri batzuek kendu asi zizkan Lendakari jaunak ta baita poliki egiña zegola adierazi ere.

Bigarrenez "Altuna tar Axentzio gizon bikaña" zeritzaion zati bat irakurri zuan Idazkari jaunak. Ontzat artu zuan Lendakari jaunak bere lantxoak.

Azkenik oro bat egin zuan Amutxategi tar Andonik bere lanarekin. Gauz illun batzuek argitu zizkan Lendakari jaunak. Itz sail batzuek ere euskeratu zitzaizkion. Ta onekin egin zuan egunekuak.

Nik guzi au egia dala adierazi nai det ta orregatik ipintzen ditut emen nere izen abizenak.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

8.— 1.935'ko epaillak 10 zituala Lendakari jaunarekin zuten batzarra. Aroze-naren eusko edesti euskeratzalleak.

Lenengoz Zuloaga ta Elias jaunak irakurri zuan bere lantxoaren zati bat. Baita ondoren Idazkari jaunak ere "Salazar ta Lope Gartzia" zeritzaion Sukia jaunarena. Ta azkenik Vitoria'ri buruz Sagarna jaunak.

Beste gabe egunekuak egin zuan.

Te guzi au olaxen dala aitortzen det, orregatik jartzen ditut nire izen abizenak.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

9) 1.935'garren urteko maiatzaren 31'an Idazkari jauna buru zutela "Aula magnan" izan zuten beren batzarra Jakintz bide Batzako euskeltzaleak.

Lenen azkenengo batzarreko agiria irakurri zan.

Ondoren euskal sariketa Saturrararen'en egingo zala adierazi zuan Idazkari jaunak; nola izango zan galdetu zuan Goikoetxea tar Mikel'ek eta erantzuna eman zitzaion ta ontzat artu zan gañera euskal sariketaren deia guzien aurrean ipintzea.

Nai ta naiezkoa araudiak egintzen duanez nork bere batzako galderaldiari erantzuna ematea ta "Charte Linguistica" galderaldia bazkide guzien artean banatu zan. Saturraranerako galderaldiari erantzuna ematea zala egokiena esan zuan Idazkari jaunak.

Urrena aldizkingia izan zan itz bide: euskeraz ta erderaz bi aldizkingi atera bear zirala erabaki zan Jakin Bideko Batzar Nagusian eta euskal aldizkingiak oraingo filosofoen Kardaberaz izan bear zuala gañera. Gai oneri buruz filosofoen erantzunik etzala oraindik artu esan zuan idazkari jaunak ta noski Saturrararen'en emango zutela. Lenengo aldizkingia Saturrararen'en argitaratzeko asmoa gendualako, bada ez bada lan batzuek egiteko eskatu zuan Idazkari jaunak. ta gañera datorren urtean aldizkingia ateratzeko on zitzaigula lanak ugari xamar eukitzea ta bakoitzak urrillerako lau bost egin bear zituala erantzun.

Arozena'ren edesti gaiak euskeratzeko iru biurraldi falta zirala ta laguntza eskatu zun Idazkariak. Azkenik Txomin, Arrinda ta Arostegin artean banatu ziran.

Goikoetxea tar Mikel'ek euskal itzakin zer egin bear zen galdetu zuan. Orain arte bildutako itzak asko zirala adierazi zuan Idazkariak, ta lan eder onetan aurrera jarraitu bear zala; orain arte bildutako itzak Saturrararen'era eramango zirala bazkideak on zeriskioten itzak jaso ditzaten ta beste gabe egunekuak egin zuan.

Ta guzi au orrelaxe izan zalako nere eskuz zin egiten det.

Orio'n, Garagarrillaren 2-an.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

10) Saturraran'en 1.935 garren urteko Agostuaren 13'an otoi alditxo batekin asi zuten Batzarra Yakintz Bide Batzako euskeltzaleak.

Irakurrj zan azkenengo Batzarreko agiria ta bai ontzat artu ere.

Charta Linguistica'ren galderaldiak jaso egin bear zirala adierazi zuan Idazkariak eta Arruti, Ansorena ta Jauregi'ri euren errietakoak eskatzekotan gelditu zan.

Euskal aldizkingia bereala aterako zala ta laguntza eskatu zuan Idazkari jaunak. Zalla zala jllero aldizkingia argitaratzea ta Urrilleko lan bana egitera geratu ziran batzarreko guziak.

Sariketara batzarreko al zitun guztiak aurkezteko eskatu zuan. Idazkari jaunak. Ta sariketako bazkideen lan guztiak Batzarraren mende artzea ontzat jo zuten guztiak.

Azkenik gauzak zuzen eramateko Araudi bat bearrekoa zala esan zuan. Araudia egiteko Barruetabeña, Jauregi, Arruti, Sukia ta Arostegi jzendatu ziran.

Esanak esan ordukoak egin zuan.

Ta guzi au, diotan bezela dalako, nere izena abizenpian ipintzen det.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

1.935-1.936

Jakintz-bide-batza'ko Euskeltzale bazkideak.

4'garren Urtziztikoak (Teologia)

Amutxategi jauna.

Irigoyen jauna.

Irasuegi B. jauna.

Plazaola jauna.

Arrieta jauna.

2'garren Urtziztikoak (Teologia)

Albizuri jauna.

Ansorena jauna.

Barruetabeña jauna.

Berrondo jauna.

Bilbao jauna.

Garamendi jauna.

Goikoetxea M. jauna.

Jauregi jauna.

Lekuona jauna.

Zuloaga jauna.

Olano jauna.

3'garren Urtziztikoak (Teologia)

Abaunza jauna.

Arostegi jauna.

Arrinda jauna.

Arruti jauna.

Aranburuzabala jauna.

Galarraga jauna.

Solozabal jauna.

Sukia jauna.

Usobiaga jauna.

11) 1.935'ko urrilla'ren 24'an.

Arratsaldeko ordu batean batu ziran Jakintza Bide Batzako euskeltzaleak.

Otoi alditxo bat egin ondoren, Arrieta, Aranburuzabala, Galarraga ta Usobiaga jaunak bazkide artu ziran; ongi etorria ere egin zitzaien.

Idazkariak azkenengo batzarraren agiria irakurri zuen ta bazkideak oniritzia eman zioten.

Gure Batza'ri on zitzaiola guztien aurrean zerbeit bazela azaltzea ta orretarako lanari gogor egiteko eskatu zuan Idazkari jaunak.

Sarituak nor izan ziren Abenduaren 8' alderako adieraziko zuela zion Idazkariak eta euskal jaia nota izango zan lendakariarekin egon ondoren erabaki bear zala.

Aldizkingia ere izan zan itz bide. "Kardaberaz" aldizkingia, illabetetik bein argitaratzea gutxitxo izango zala ta erdel aldizkingiarekin batuta lanak argitaratzea ontzat artu zuten bazkide guztiak.

Gero Batza'ren araudia ez baitan ipini ta ontzat artu zan. Lenengo iru atalek etzuten izan eztabaidarik. III garren atalak lau jasotzalle ta aldizkingiak iru bazkide izango zirela zion. Iru baño lau obe zirala esan zuan Arrieta jaunak ta guztiak ontzat jo zuten.

Era berean IV atalean 3 aldizkingi zaitzale zion tokian, lau aldizkingo zaitzalle ipini zan.

✓ garreneian ta VI gaien atalak bi bazkide izango zirela zion galderaldi ta Jakintz itzen zaintzale. Arrinda jaunak bi gauz oietarako atalak alkartzea zala egokiena ta Batzarraren oniritziz alaxen egin zan. Gañontzeko atalak eztabaidarik gabe ontzat artu ziran.

Lenengo lana il onen azkenerako bakoitzak eman bear zuala esan zan, ta bigarrena urtearen azkenerako.

Lan oekin zer egin bear zan galdetu zuan Arrieta jaunak ta eztabaida luze xamar baten ondoren erabaki au artu zan: Lan jasotzalleak lanak aldizkingirako aukeratu ondoren, gañontzekoak bazkide artean banatu bear zituztela ta lan bakoitzari bi iritzi emalle ipini. Ta idazkari jaunari ongi bazitzaion, iritzi oek Batzarrean irakurriko zirala.

Ta azkenik euren kontura tresna ugaritzallean argitaratu bear zala araudia nai zuten bazkideak.

Beste gabe otoi aldixoakin bukatu zan Batzarra.

Ta nik Idazkari naizen ezkeroz ta guztia diotan bezela dalako nere izena abizpian ipintzen det.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

12) 1.935'ko Urrilla'ren 28'an, arratsaldeko ordu batean Batzarra zuten Jakintz-Bide-Batza'ko euskeltzaleak. Idazkari jauna zegoan mai buru.

Otoi egin ondoren bazkideen izenak irakurri zituan Idazkari jaunak guztiak batzarrean ziran edo ez jakiteko.

Gero Arizmendi jaunak gure Batzarrekoa izan ez arren, Idazkari ta bazkideen baimenaz euren Beti Aurrerako Batza'ren berri eman zuan ta gure asmoak jakin nai ta Idazkariak onela adierazi zioskan: Euren Batza desegindu gabe, bearrekoa zala gurea ere orain ta beti irautea ta orretarako eskabide bat egiten zien Beti Aurrera Batzakoei. Euretako bat edo beste gure Batzan sartzen ez ba zan, oraingo filosofoei bideak itxita uzten zizkela gure Batzan sartzeko; orregatik orain ta beti gure Batzak irautea nai degulako, arren beti Aurrerako bazkide bat edo bi Mayatz alderako geure Batzara ekartzeko.

Ondoren azkenengo Batzarraren agiria irakurri zuan Idazkari Jaunak ta Aldizkingiari buruz ziona ez beste guztia ontzat artu zuten bazkideak. Euskaldunen artean anaitasuna izan zedin Beti aurrerakoekin bat egiñik aldizkingia argitaratu bear genduala esan zan.

Araudia oniritzen zuela Lendakariak adierazi zuen Idazkariak ta Araudiak agintzen dituan lanetarako bazkide batzuek autu ziran.

Idazkariak gudara joan bear zuela ta Batzari on zitzaiola Idazkari berria aukeratzea esan zuen Idazkariak ta autarkien bitartez Arrinda jauna autu zan.

Bigarrenengo auteskundeetan lau jasotzalle ta aldizkingi zaitzalletarako, Abaunza, Berruetabeña, Goikoetxea Mikel eta Lekuona aukeratu ziran.

Galderaldi ta Jakintz itzen ardura eukitzeko berriz autarkirik gabe Galarraga jauna artu zan.

Gabonetan antzerki politak antzeztuak izan zitezen, antzerki billa azteko eskatu zitzaizen Arrieta, Arruti, Aranburuzabala, Garamendi ta Arostegi jaunei.

Arozena'ren bi atal euskeratzeko Arrieta ta irigoyen jauna artu ziran.

Arozena'ren idaztiak gipuzkeratu ta bizkaieratu bear giñuztela erabaki zan ta on zitzaigula misala euskeratzen astea ere' baña gai oneri buruz Gernikako Yosulagunak ari ote ziran esan zuan Abaunza jaunak ta Lendakari jaunarekin itz egitekotan gelditu zan Idazkaria.

Euskal itzak gerotzen aurrera jarraitu bear genduala esan zuan Idazkariak ta Mendiburu'ren Otoitz-Gaietatik itzak aukeratzeko Berrondo, Jauregi ta Goikoetxea izendatu ziran ta Ibargutxi'ren Ikurtonetako Bilbao jauna.

Azkenik eskerrak emon zizken Idazkariak Batzarreko guztiei berakin oso ongi portatu ziralako ta era berean berriarekin portatzeko eskatuaz, otoi alditxo batekin egin zuan egunekoak:

Ta nik guzi au alaxen dala adierazi naiaz nere eskuz zin egiten det.

Idazkari: Arostegi tar Jokin.

13) 1.935'ko azaroa'ren 21'an arratsaldeko ordubatean Jakintz-Bide-Batzako euskaltzale Kardaberaztarrak "Aula Magna"n batu giñan.

Otoitz ondoren bazkideen izenak irakurri giñuzen. Gero Batzarrean zer edo zeren ardura zutenak beren eginkizunaren kontu eman zuten.

Ainbat aldiz aitatutako aldizkingiari buruz "beti Aurrera"koakin bat egiñik ezin genezakela aldizkingia atera; biontzako gutxitxo litzakela ta guk erderazkoan idatzi dezagula artu zuten asmo "Beti Aurrera"koak. Ortara makurtu bear izan degu. Jarrai zagan bakoitzak bere aldetik alkarren kalterik gabe.

Juan dan urtean aukeratutako Arozena'ren Euskal Edestia, bizkaieratik gipuzkeratu ta Gipuzkuatik bizkaieratzen degu aurtengo egin bearra.

Euskal Eguna Ilbeltzean egingo degu J.L. Egun ortarako Lizardi tar Xabierren buruz bi lan-gai ba dituala esana dauka lendakari jaunak.

Bi lantxo irakurri, Lizardi'ren olerki batzuek esan ta euskal sariketako sariak banatzen beteko genduke Euskal eguna. Lendakariak berak aukeratu bear zituala izlariak erabaki zan. Lateratik zuzenean artuta ditugun uzkurtz itzak biltzekotan gelditu giñan; eta norberak bildutakoak Galarraga'ri eman.

"Eun dukat" Gabonetan bota bear degu. Arostegi, Aranburuzabala, Arrieta,

Arruti tar Garamendi antzerkiak biltzeko izendatuak zeudenak, izango dute orren ardura ere.

Ondoren "Araudia" banatu gendun bazkideen artean.

Urrena berriz Jauregi tar Jose Leon'ek lantxo bat irakurri zuan. Iritxi emaleak Barruetabeña ta albizuri jaunak izan ziran.

Otoitzak esan ta Batzarrekoak egin zuan.

Diotenaren argibidetzat ona emen nire izen abizenak.

Idazkari: Arrinda tar Anastasi'k.

14) 1.936'ko Ilbeltzaren 9'an.

9 1/4 tan alkartu giñan Jakintz Bide-Batzako Euskaltzale Kardaberaztarrak.

Bereala erabaki bearreko gauza batek alkartu ari giñuzan eta Idazkariaren orde zaxorik etxean zalako, Jakintza-Bide-Batzako Idazkari Nagusia izan zan

mai-buru. Otoitxo bat eta asi giñan. Aldizkingia zan itz-bide. "Aurrera Beti"koak beren aldizkingian nola toki eman nai ziguten adierazi zan eta ontzat ematea ote zan edo galdetu zan. Eta anaitasuna begien aurrean zala berealaxe baiezkoa artu zan. Orduan Batzako lan biltzalleei eskatu zitzaien lanak aukeratu zezatela askar, zuzendu-bearrekoak zuzentzeko esan da.

Olano'tar... ere bazkide egin genduan; eta besteik gabe otoitz batekin bukatu genduan egunekoa.

Orrela dio batzaren idazkari ordezkotza egin zuan Sukia tar Joseba Mirenak.

Idazkari ordekoak jaso bezela egin det agiri au.

Idazkari: Arrinda tar Anastasi'k.

15) 1.936'ko Ilbeltzaren 30'an arratsaldeko ordu bat'erditan "Aula Magna"n bildu giñan batzarrerako Jakintz-Bide-Batzaren Euskaltzale Kardaberaztarrak.

Bazkideen izenak irakurrita, aurrerako bi batzarretako agiriak oniritzi ziran.

Arruti jaunak, noiztik geran "Kardaberaztarrak" galdetu zuan. Gure Batza onetako leendabiziko agiria irakurtzea izan zan erantzuna. Onela dio agiri orren asierak: ' 1.934'go azaroaren amarrean Kardaberaztar irugarrengo malleko bazkideak Idazkari Jauna buru zutela "Aula Magna"n bildu ziran".

Lan biltzalleei lanak lenbailen biltzeko eta iñork lanik ematen ez ba du kontuan artzeko esan zieten.

Arozena'ren Euskal Edesti'ko euzkeratu gabe zeuden iri kapitulo onela banatu giñuzen: Bata Irigoien eri, bestea Sukia'ri ta irugarrena Jauregi ta Olano artean erdibitu zan.

Norberak bilduta dituan laterazko uzkuertz-itzak (Euzkerak lateratik artuak, alegia) Galarraga'ri otsailla'ren lenengorako emateko erabaki genduan.

Gipuzkeratuta dauden Arozena'ren kapituloak bizkaitarrei banatzekotan gelditu giñan.

Euskal eguna barrero ere itz bide. Asko itz egin ondoren etzan gauza garbirik erabaki. Batak "Lizardi" litzakela gai egokia; besteak Euzkel antzerkia ere polita litzakela; Euzkera noiz nun galdu zan edo gaur bertan nun da nolabizi dan ez litzakela okerragoko lana irugarrenak. Azkenez Lendakari jaunak Lizardi'ri buruz dituan gaiak ikusi ditzala Idazkariak eta ikusi ondoren arazo au erabakiko degu garbi.

Batzarra luze zijoakigun ta lana irakurtzea beste baterako.

Otoitzak; eta beste gabe bukatu gendun batzarra.

Ala da oro.

Idazkari: Arrinda tar Anastasi'k.

16) 1.936'goa (Emen amaitzen da)

Maiatzean amaitzen zan ikastaroa eta ez zan garai ederra batzarrak izateko. Agiriak idazteko ere ez, emen ikusten danez.

Ekainillarekin batera asiera ematen zitzaion oporrei. Oporretan geudela, asi zan gerra (1.936-39) eta arretzek ondatu zituen gure asmo ta ames guztiak...

Baña or agertzen diran gizonak ez zuten beuren asmorik ere bat galdu.

Eta orduko idazkari zan Arrinda'k, jarraian Kardaberaz Bazkuna'ren sortzari buruzko argitasunak ematen ditu.

Argitasun orreik lan onen asierako KARDABERAZTARRAK, Jakingarriak, saillean zeaztuta gelditzen dira.

Idazkari: Arrinda tar Anastasi'k.



KARDABERAZ LIBURUEN ZERRENDA

KARDABERAZ BILDUMA

	P. V. P.		P. V. P.
1		20	
Kardaberaz Aitari Omenaldia		Lekuona'tar Manuel jaunaren	
Zenbait idazle (1971) z 9 or•	300	Omenezko Idazki-Bilduma, II	
2		«1977» 3•3 Or.	Loco
Neurriztia		21	
Luis Egja (1972.) 523 or-	400	Lekuona'tar Manuel jaunaren	
3		Omenezko Idazki-Bilduma, III	
Surge		(1977) 396 or.	1.000
François Mauriac - «Uxola» (1973)	300	Idaz-Lan Guztiak	
169 or.		Obras Completas de Manuel tekuono	
4		en 10 vol.	
Ezpalak		22	
«Uxolaa» (1977) 191 or.	veo	1. Aozko Literatura	
5		(1970) bz 4 Or.	1.700
Aitonaren Ipuiak		23	
Ramón Murua (1974) 140 or.	250	2. Eusko Etnografía (1978) 58s or.	1.500
6		24	
Erreka Zuloan eta...		3. Arte Izti (1979) 398 or.	1.500
Anastasio Albisu Ayerdi (1974) 339 or.	400	25	
7		4. Kondaira (A) (1980) 420 or.	1.700
Shakespeare - Komediak, I		26	
Larraoetxea'tar BediUa («1974») 322 Or.	710	5. Kondaira (B) (1980) 436 or or.	1.700
8		27	
Landare-Jakintza (Botánica)		6. Olerkiak En prensa	
Larrañaga, Guillermo (1975) 183 or.	500	28°	
9		7.	
Gartzi-Ximeno, eta		29°	
Anastasio Albisu Ayerdi (1975) 258 Or-	100	8. } En preparación	
10		30	
Euskalerrria eta Eriotza		9.	
Anastasio Arrinda Albisu (1974) 290 or.	100	31'	
11		10.	
Shakespeare - Komediak, II		On Manuel Lekuonaren bildumaUlK - Iaburpenak	
Larraoetxea tar BediUa (1975) 071 Or.	750	Separatas - Obras Completas de Don Manuel	
12113		22 (A) Aozko Literatura (Iaburpena) («1970») /	
Shakespeare - Dramak, 1-II		188 or.	400
Larraoetxea Uar BediUa (1977) 468 or.	1.200	22 (B) Literatura Oral Vasca (1970) ,06 Or.	
14		23 (A) Eukalerrria Historiaren Sarrera (1978)	
Shakespeare - Trajediak, I		45 Or.	\$0
Larraoetxea'tar BediUa (1976) 58 or.	770	23 (B) Inauterriak (1978) 26 Or.	\$0
15		28	
Shakespeare - Trajediak, II		Euzkal-betekinzunak	
Larraoetxea Uar BediUa (1976) 593 Or.	750	«Umandi» (1977) 225 or.	500
16117		29130	
Gramática Vasca		Complemento Gramática Vasca	
«Umandi» (Dos vol.) (1976) 784 Uu	1.700	«Umandi» (1978) 584 Or.	1.500
zo8 or.		31	
18		Las etimologías vascas en la	
Txiruliruka-Olerkiak		Obra de Luis Michelena	
Loidi tar Paben («1977») 45 or.	300	uan José Arbeldiz (1978) 1r6 or.	555
19		32	
Lekuona'tar Manuel jaunaren		Erroma'ko Eleizearen Araudia	
Omenezko Idazki-Bilduma, I		A• IpoliUo Larraoetxea (1978) 472 Or.	1.000
(1977) 341 or.	1.000	33	
		Iztueta'ren Olerkiak	
		uan Garmendia Arruebarrena (1978)	
		192 or.	770
		34	
		Barandiaran'dar Jose Migel	
		Barandiaran eta Irizar tar Luis (1980)	
		XVI -I- E60 Or.	1.500

KARDABERAZ LIBURUXKAK

	P. V. P.		P. V. P.
1 Kardaberaz, 1 ZenbaitU idazle (1971) 30 or.	So	7 Kardaberaz, 4 1975. Zenbait idazle (1975) 84 or.	tso,
2 Ume Txikientzako Soinketa Marrazki ugariz ornitua (1973) 19 or.	So	8 «Pakearen-Erregifia» - Meza Pildain Araolaza'tar Joaquin (1974) 43 or.	600
3 Euskalerrri Zarreko Jainko Txikiak; A. Arrinda (1973) 19 or.	So	9 20 Ipui eta... antzerkitxo bat ikastolarako A. Albisu (1975) 14s or.	r4S
4 Kardaberaz, 2 1973. Zenbait idazle (.07s) 110 or.	100	10 Kardaberaz, 5 1976. Zenbait idazle (e 977) 109 or	zoo
5 Kardaberaz, 3 1974. Zenbait idazle (.975) 14 or. ...	zoo	11 Kardaberaz, 6	
6 Amezketako Pernando Albizu ^{so} Ayerd'ter AnasUasio (197s)			

Pedidos a:

KARDABERAZ BAZKUNA

San Francisco, 1 - Apdo. 83 - Tel. 67 15 10

TOLOSA (Gipúzcoa)

«UMANDI»

Complemento de la Gramática Vasca

PRIMERA EDICION

Dos volúmenes, 586 páginas
14 cassettes

Euzkal - Eliztiaren Betebidea

LENENGO ARGITALPENEA

Bi idaztitan, 586 orrialde
14 gaiartzu txiki

Pweclas en pesetas de Taranta al pública'

Un volumen y 7 cassettes... ..	4.250
Ambos volúmenes más 14 cassettes...	8.500
Ambos volúmenes (sin cassettes)	1.500
Cada libro (sin cassettes)	750
Cada cassette	650
4.250 Idazti bakoitza ta 7 galartzu txikiak	
8.500 Bi idaztiak eta 14 galartzu txikiak	
1.500 Bi idaztiak (galartzuak gabe)	
750 Idazti bakoita (galartzuak gabe)	
650 Galartzu txiki bakoitza	

EUSKAL ITZ ETA ESANAI BERRIEN SORBIDEAK

Nire lantxo xume au, geroan norbaiti onuragarria izango zaiolakoan egin dut. Ilabetez euskaltegian euskara ikasten sortutako idarokizunak dira auek, eta, gal ez izan arren, euskeraz idatzi nai izan dut. Barkatu arren nire akats ugari.

Azkue apezak bere iztegian itz berrien azi-orraziak iraisean aztertzen ditu, batez ere "neologismos" eta "sinónimos" atalxoetan. Aita lakakortaxarenak (G.B.), bere aldetik, "Erlezaintza" bi idaztietan, itz edo esanal berriak nola sortuz ikastaro bikaiña ematen digu, eta dena erabilerreza ez izan arren, atamen-darik billatzera ara io dezake irakurleak.

Itz berrien arazoaz, esanaiak —el significado— elearen muiñara eta gaitasunetara xuxen bideratzen gaitu eta, itz berria baiño esanai berria idatzi naiago nuke nik.

Euskeraren oiñarriak ez zirela indoeuropearrak denok dakigu. Oek baiño leen sortuak nonbait, ikasgai guztietan i.e. sorburu ez duten izkuntzekin alde-
ratzea guztiz iakingarria izango liteke. Orrexegatik, izkuntzalari ez naizen arren, ori egitera saiatuko naiz.

Txinera

Txinerak, lurbiran geien mintzatzen den eta mendeetan zear geien idatzia izan den izkerak, beste izkuntzetatik artutako itzik (itzeskatua) ia ez du egaritzen, eta, geienetan, burutapen eta gauza berrien aurrean zer edo zertarako diren adierazten saiatzen da. Au burutzeko, lakintzak grekoz eta lateraz egiten duen bezala, txinerak ere izkeraren ele xaloez eta xinglez berrikuntza guztiak izendatzen ditu (1). Itz baiño, esanai berriak dabillela billatzen esango nuke nik.

urrutizkiña (telephone): dián húa [argindarra/mintzo] [eta era berean indarra erabiltzen duten tresnen izen multxo bat].

gogoiztia (s;ología iakintza lez): sin lí xué [biotz (gogoaren aalmenak) / adimena / iakitia]

[Txinatarren izkuntzak, aditzak ez dira iokatzen eta, "arkaiko" dela leritzoguz, baiña "arkaiko" edo xingle dela esateak ez du esan nai "atzeratua" denik. Txinera aditzeko, ori bai, irudimena ibili bear izaten duguz. Gure egungo sartaldeko izkerak, berriz, dena mazkatuta eta ondo aogozatuta ematen digute, geiegi eiki].

Suomiera, Ebraiera

Suomiarrak (Pinlandiarrak), irakurri dudanez, izkuntzaren aalmenak eta gal-tasunak ustiatuz bide bera arto dute; eta iudutarrak ere, erriko maillan beintzat, irudimenaren alde dute bere gogoa, iraupena sormenari zor diote eta.

Iaponiera

Iaponierak, berriz, la alderantziz iokatzen du. Izkera au gainaldetik bakarrik ezagutu arren, adierazpen batzuk eman nezazke. Itz multzoaren 1/3, XIX.a arte mendeetan zear irabazia, txineratik ialgita izan ornen da. Egungo iaponia-

1 toki izenak eta izen bereziak ezik, noski.

rrak itzok jatorizat ditzuzte, baiñan eskatuak diren gajñontzekoak, ostera, azkar atxikitzen eta, batzutan, aldira, lagatzen ditzuztela. Ele jatorrak, betikoak eta txineratik datozenak, "Kanji" txinatar idazkeraz marrazten ditzuzte, baiña besteak idazteko, aatik, "katakana" idazkera erabiltzen dute (2).

Itz eskatzeko iobera onen garaizarre bakarra da itz iatorren esanaiak eta izkuntzaren gaiñeko ioritasunak oso osoan gorde eta, guk ez bezela, artoski zaindu ditzaketena (3).

[Gizon eta gizemenganako adeitasuna adieraziz oso ioria eta garatua da iaponiera. Gure artean, aldiz, izkuntzaren egoera larriagatik edo, ingeleserako alde bakarra antzeratuz, zuka asten eta bukatzen dituzu euskaltegiko ikastaroak. Ondorioz zukaren izakera berezia ere galdu egiten da]

urrutizkina: den wa (txineratik [ikus]) — "kanji" idazkeran geienetan.

ikusirratia: terebiao) (itz eskatuaren doiñua moldatuz, ez dute esanai berria billatzen) — "katakana" idazkeran.

[Euzkeraz zer dan iatorra eta zer ez trenkatzeko —erroa ain da aintziñekoa-iaponieraz baiño zaillagoa da ziuraski, eta geienetan etorkiak billatzen, lakin-tzarj dagokjon eran, azkarregi iokatu orde, *zerikusi* dutela edo lezaketela naia-go dut esan. Laburki esanez: ezin dugu oraindik lainta edo ein zeatzik eman].

Euskeraz itz edo esanai berriak sortzeko urrengo urratsak bederen eman ditzakegu:

1.—lakintzatik sortutako itz ondua (kultjsmoa) euskaratuz:

urrutizkina: telephone

arorio: petroleum

berdegune: espace ved [nire ustez ez da zuzena, kiroletan, joko zelaietako urribelarra (el césped) adierazteko].

Norberaren izkeran gauza edo gogaj berna, zer eta zertarako den iakiteko legezkoa eta gertoa da. Dakigunez, mintzaira guztjetan itz osatua betidanik izan da erabilia (azpilla, gupilla, opilla, antzeman, erabili, urribelarra,...). Orre-xegatik, iator senatik berez sortua edo Jakintzaren kultismoa ximenki euskaratus, adiñona eta atsaina gertatu oi da.

[kastegietan, eta ikastegietatik landa erebaj, irakasle mazal, baiña arazo onetan txirripitin, batzuek, orrelako itz euskaratuak erabiltzeagatik, ardi deslariatat artuko zaituztete eta, xuxen edo zearka, aizeatua izan zaitezke].

2.—Erdal izena eraldaduz

Egoki bat idoro arte, bein beiñeko izen traketsak nire iritziz. Onez gainera batzuei errez xamar aurki liezaguke euskal izen adiñonik.

inkesta (enquette): iritzi eske

fronte (fronte) [eguraldiaz]: bola, bolada, olde, oldar, ertz, dagozkio egiazko asanalari.

3.—Itza euskaraz idetuz:

biztamena, biztaamena: vitamina

zugariña, zugaiariña: Casuarina

lakintza alorlean izen burutsuok guztiz iakingarriak litezke. Izena pittin bat aldatzen da, eta, aldi berean, euskeraz, gauzaren lurriña adierazten digute. lakintzaz eta izkuntzaz iantzita direnak egin dezakete. Aita lakakortaxarenak bere "Erlezaintzan" maiztxo erabiltzen du alde au; bi adibideok ortik artuta.

2 "pan" (ogi) itza orain dela 400 urte artuta, katanaz idazten iarraitzen dute.

3 badira ere itz berriak artezki ondatuak.

4.– Euskal itzaren esanaia zabalduz:

kirola: regocijo, divertimento de deporte [deportar: divertirse]

txirringa: rueda ciclo

Izenok laburrak eta esanguratsuak diralako, bide erabilgarrienetakoa da. Arriskua, txikia baiño, esanai jatorra aldatzea da [4]. Ala ere, txineraz, arazo larririk gabe, itz berak amaika esanai bana izan ditzake.

bi erakuskari, erdaraz bezala, itxuratik iradokita

platuxa, muxanpa paraguayoy, chato, paragüero [muxikien melgalda bat]

triku (sagarroi, kirikiño) kiwi, grosella china, yang tao [kiwi = N.Z.ko egazti mota]

euskalkien arabera itzaren aldaketatxoak ere erabil daitezke.

5.– Iztegiak sakonki ustiatuz

Euskal izenak ugari diran arren, askotan agitzen da erdal itzak *bakarrik* erabiltzea.

temperatura: ozpero, aro, giro, ozgiro, berogiro, ...

costaparte: izbazter, itxasbazter, itsasegia, itsasalde, ...

Erri maillan baiño, lakintza maillan bearrezkogoa iruditzen zait iztegi ustiatze au. Landare iakitia, euskal iakintzaren alor aberatsena dela eta, kanorea duena euskaraz dotoretsu egin lezakegu. Arlo au euskeraz iorratzea onuragarria litza-kela, nainork antzeman dezake.

Adibide bezala, euskalki batean oiñarrituta, Lerraren (Pinus) sailkapen labur bat. Antzeko motakapenak lakintzan naiz zabalkunde liburuetan egin daitezke.

Regnum: -	laurgo: -	(1) lateraz: pinus grekos: pitus(zugatz lerdodun bat)
Subregnum: -	I. ondoan: -	proto i.e.:-
Phylum: -	Etorki: -	(2) euskal izen iatorrena agian zerikusi urrengo
Subphylum: -	E. ondoan: -	itzekin: lerdo, lerdá, lertxun, lerden, lerro, leralde,
Classis: -	Batza: -	lertzó, lerratu, leertu, lar, belar,...
Subclassis: Coniferae	B. ondoan: Muradunak	Gaurko iztegiak piñu, piñaburu, piñazi Piñu,
Super ordo: -	Ariaurena: -	insignis Piñua, Piñu gorria, eta abar izenak
Ordo: Pinales	Aria: Ler aria	erabiltzen dituzte eskuarki, baita -bateré ulertzen
Familia: Pinaceae	Azkazi: Ler azia	ez dudana- lakintza arloan ere.
Subfamilia: -	A. ondoan: -	(3) kostano (obono): sorlekuaren gizaleiñua.
Tribus: - A. ondoango: -	A. ondoango	
Genus: Pinus (1)	Kunte: Lerra (2)	
Sectio: -	K. atala: -	
Series: -	K. andana: -	
Aggregatus: -	K. eranskiña: -	
Species:	Melga:	
1- Pinus sylvestris L.	1- belorita Lerra	
2- Pinus mugo T.	2- muga Lerra	
varietas: P.M. var. rostrata	melgalda: m. L. Luzea	
3- Pinus pinaster A.	3- lerdoki Lerra	
subspecies: P.p. sbsp. Atlantica	melgaondoan: Landa 1.L.	
4- Pinus nigra A.	4- Ler arrea	
subspecies: P.n. sbsp. nigra	m. ondoan: Austriako L.a.	
5- Pinus pinea L.	5- biñño Lerra	
6- Pinus insignis D. ex L.	6- kostano Lerra (3)	
Pinus radiata D.D.		

6.– Aintziñeko eta aaztutako itzak berrezkuratuz:

Ele boti au, batez ere idazkietan, beste edozein oidalako elea lez, leengo esangurakin eta esanai zabalduarekin ere erabil liteke.

4 batez ere euskalkiak, zuzpertzeko laguntza ezagatik, kilikolo daudenean.

arnari / ernari: fruto / feto cigoto.

irudin (Mogel): imagen film, película. [imagen, figura busto (lakakortaxarena)]

7.— Betiko eta iatorrenako era ibiliz (atzizkiez eta aurrizkiez)

Garai guztietako era bat da, eta atzizkien bidez itz berriak naroki eta nasaiki izan dira sortuak. Ikus bestelan Azkuek -tu atzizkiari buruz idazten duena. Erlezaintza idaztietatik idokitako bi adibide emango ditut.

ustekizun, egiustekizun: teoría (Erlezaintza)

usteizun: falsa teoría (Erlezaintza)

antsigarria = garrantzia

Aditz trinkoak ere erabilgarriak dira, eta, geienak oraingoz ibiliak ez diran arren, Azkueren iztegiatik artuta, ona emen adibide batzuk. Baliteke, batek daki, geroan era au garatua edo zabaldua izatea.

edun

-dun, -duru, ... atzizkiok antsigarriak dira, eta amaigabeko izenak sor ditza-kete. Edun aditzetik baldin badira, eduntasun adiraziko lukete.

dirudun = rico

adindu = racional

exurdun = drupa, drupáceo (esanai berria) [exur: hueso de drupa [Lakoizketa]]

izan

Arrigarria da edunetik -dun atzizkia ain erabilgarria izatea eta izanetik -dan, -da izantasun adierazteko ez. [izango ote da atzizki batzutan (ta) gordeta?]

dan (dana, danau, danori, danak) = todo, todos

dantxua = todo lo poquito que es

danok = nosotros o vosotros

danbestean, dangiño = caerse de bruces (hasta lo que es)

nazau = todo (nazan au = todo yo)

oidalako = regular corriente, normal

usta = uts da (urte gaistoa barri usta) eta Refranes

zarantasun = existencia (zure)

badalazko (iakakortaxarena) = existencia [...ezagutzatik eta badalazkotik sortzen da...]

egon

dagoeneko, dagoneko, dabeneko, dauaneko, daioneko, daieneko, deneko (dago+e+neko), daburduko (dagoan orduko) = tan pronto

dago, dagoka, tago, tagoka = estar de pie, ejercitarse un niño en, sostenerse

[dandai, dendun, denden, ten, tente = quedarse en equilibrio un niño que apenas anda, equilibrio,...]

enauke (ez nagoke) = incomodo, inquieto, revoltoso, no puedo estar

dagokan = en equilibrio

erion

sabeldario = diarrea

eztidario = melifluo

argia eriola = resplandeciente

ondarjela = herencia, la reserva de los padres

dabilur = agua corriente

urdabjil = útero?

urdabileko = histerismo?

urdabil, urdail = estómago?

atxiki / eutsi

datxikona, deutsana = colindante

datxikola = inmediatamente, sin interrupción

iarrai?

darraytu = convenir?

sabeldarraio = glotón?

etorri / aigu

betor = árbol fructífero?

datorrean, dagun, dalgun, daugin = próximo, futuro (daigun urtea, datorean urtea) aitor, iator?

Patxi Arizabalo

EUSKAL ERABILKERA BATZUK

Urrestarazu tar M. Terese'k, bere anai "Umandi" ospetsuaren keskak gogoan zitula, idazki bat zuzendu eban Euskerazaleak'era. Lau galdera ziran bereak.

Emen argitaratzen dogu idazki;a eta ondoren Olazar'tar Martin Euskerazaintzaren lendakariak "ZER" aldizkarian emondako erantzuna.

Euskerazaleak - Bilbao

Adizkideok:

ZER gure aldizkaria'k: "Obetu dagigUn gure Euskera" daka en idazlana oso egoki deritxot. Orela gero ta geyago ikas; al izango dogu.

Orain daukadazan zalantza batzuk azaldu nai dautsuedaz.

Lenengoa: Nere neba zanaren "Umandi" Eliztiak arau bat daka "I'az egiten diran bikondeak itz baten amayean agertzen diranean eta gedin bateaz asten dan baste itzatala batutzen zayenean, I (gediña) Y (igidiña) biurtzen da: ANAI + -A = ANAYA, B + =EN = BEYEN, GOI + -AÑ = GOYan".

Idazle onak Olabide izan ezik ez dabela arau au erabiltzen oartu dot, zergaitik?

Biga ena: Geyenetan Aita Santi, Aita Txomin... esaten eta idazten da. Nere neba'k beti esan eustan: Dala ez dau esan bea', Santi Aita, Txomin Aita... baik. Zein da era obea?

Iruga ena: Oraingo AITA GUREA otoitzean danak diño: "Ez gagizu zirikamenera eroan" Andoni'k ori buruz beti kezka zegoen esaten: "Jaungoikoa'k ezin leikegu ori egin ta neretzat txarto da". Azaldu egidazue esaldi ori, aren.

Lauga ena: Aspaldion EUZKADI egunerokoa beti (Vela (z'az) idazten zan. Orain zergaitik (s'az)? Ta Euzkaldun, Euzkera,... itzak berdin. Lz. Mendizabal lztegia'k orela dakar. Andonj'k ere berdin idazten eben. Nola obe?

Barkatu egidazue ematen dautsuen nekea gaitik eta (euzkeraz) euzkeraz ondo idatzi ez dodalako, naiz eta alegiñak egin.

Gaszteiz'en euzkal giroa sortzen alegin ari gara, guziok EUZKERA ad-era eroan dagigun.

Ar ezazute nere agu ik beroena.

EUskerazaleak

"ZER" aldizkaria

Bilbao

Urrestarazu'tar Miren Tarasen

Gasteiz'era

Miren Terese lankide ta adiskidea:

Artu neban "ZER" aldizkarian, "Obetu daigun gure euskera" idaz-lanak dirala-ta jorraillaren 17'an bialdu zuenkuzun eskutitza. Nire gogoa eskutitz orj idazlanaren idazle dan Pedro Puxana'ri bialtzea zan eta orregaitik atzeratu da zor dautsudan erantzuna. Azkenean neuk erantzutea erabagi dot, Puxana jakituna ikusteko aukerarik ez dodala izango-ta.

Banaka erantzungo dautset zure ;taunai neure eritzia agertuz: ANAI+A=anaya

ta olakoak: Gai au aztertu dogu EUSKERAZAINTZA'n eta "Y" ori sartzearen aldekoak gñan geienok, baiña idazlerik geienak ez dabe erabiltzen, bear ba'da EUSKALTZAINDIA'ren indarragaitik. Nik EUSKERAZAINTZA aldizkarian, oraingoan baiño iru-bat zenbaki aurrerago, agertu neban abede egoki bat eta an "Y" onartzen da eta zuk agertzen dozuzen itzetan onartu bear litzake. Dana dala, ez dogu emon guztiak beartzeko araurik. Ñaiago edo ÑAYAGO dogu eritxiak agertzea, iñor beartu barik.

Afta Santi ala Santi aita? Nire ustez obeto dago Santi Aita. Bizkai-Irratian bein eta barriro entzuten dodaz, egunero, olako esaldiak: "Lengusu Kepak" edo "amama Julene'k" zoriontzen zaitu". Azkenengo itz au "zoriondu" ez dot uste ondo dagoanik, zoriona opa esan-bearrean, baiña ori alde batera, askoz obeto legoke "Kepa lengusuak" edo "Julene amama'k" esatea. Lekaideak diranean, ugari erabilten dan esaldia da "Aita Santi", erderazko "Padre Santiago"ren antzera. Ez dogu ori txartzat artu bearko, baiña nire ustez askoz obeto esana litzake Santj Aita.

"Ez gagizuz zirikapenera eroan" edo "tentaldira eroan": Onetan obeto lengoa dagoala dirudi: "ez eiguzu itzi tentaziñoan jausten", baiña iturrira jotzen ba'dogu, lateraz beintzat, "inducas in tentationem" diño, eta ori obeto euskeratuta dago Gure Aita barri onetan: Ez gu tentaldira eroan" Beste alde batetik, Barri Onak berak eta Jesus'eri buruz auxe diño": "Espirituak basa-mortura eroan eban txerrenak zirikatu egian", orduan, tentaldira eroan eban. Galdera sakonagoa beste au litzake: Jaungoikoak bizitza onetan aztertzen edo probatzen gaitu? Ez ete da ori tentaldira eroatea? Dana dala, Aita Onak beti emoten dausku zirikapen orreik azpiratzeko goir-eskar ugaria, benetan maite gaitualako. Zirikapenak beti doguz eta izango doguz baiña garaille urtengo dogu bere laguntzari esker.

"EUSKADI ala EUSKADI": Argi dago izen ori asmatu ebanak, Arana'tar Sabin'ek, EUSKADI jdatzi ebala. Baiña asko zabaldu dan, EUSKALTZAINDIA'ren eta bere kidekoan, idazkerea da EUSKADI, eta itz onetan ez dabe aintzat artu beste itz baten onartu dabena: ERTZAINA idazten dabe eta ez euren ustez izan bear leuken "HERTZAINA". Burubide zuzenak ez dira izan be EUSKALTZAINDIA'ren betiko jokabidea. Eta, jakiña, EUSKADI aintzat eta ontzat artzen ba'da, antzera artu bear litzake EUZKALDUN, EUZKERA ta abar. Ez da agiri oiñarri argi ta ziurrik itz oneik "S"rekin idazteko. Giputzak "Z" eta "S" ez dabez bardin agozkutzen eta nik itaun au egingo neuke: Zelan agozkutzen dabe Gipuzkoa'n "Z"rekin ala "S"rekin? Uste dodanez, erantzuna da ez sakon-sakon aztertu. Orretan bizkaitarrak ez daukagu esatekorik, "S" ta "Z", zori txarrez, agoskatzean ez doguz bereizten-eta.

Amaitzeko, oartxu bat: Idazkera okerra zabal-zabal dabilrelako, zuk aurkeztzen dozuzanen antzeko galderak asko izan leitekez. Baiña idazleak asko gara eta eritxi askotakoak, orregaitik aldakuntzak egin eta onartuak izatea oso gaxa da. Egiten doguna baiño asko gejago ezin leiteke egin: Aldizkarjetan eritxiak agertu baiña geiegi erjtxi orreik bete-bearreko lez agertu barik.

Orra or, Miren Terese adiskidea, zure itaunai erantzuna. Luzeegia dala? Parlatu, baiña zeatza izatea beiñago dala uste izan dot, laburra izatea baiño.

Eta beioatzue gure esker ona Araba'n euskerea ikasten eta zabaltzen ale gintzen zareen guztioi.

Biotzez agurzen zaitu,

OLAZAR'tar MARTIN
EUSKERAZAINTZAREN LEÑDAKARIAK

LANDUCCI'ren iztegitik artuak (ñ, ll, rr idazteari buruz)

adeudarse = çorr eguin
ay, donde tu estas = orr, y agua lequan
arrugar = chimurr eguin
auer gana de cagar = cacacurr nax
auer miedo = bildurr egosçi
bahear, echar vaho = lurruña dacarr
balar ouejas = ardiac deadarr eguin
clamor, gran boz = deadarr andia, aiuiuiz
colmena = colmenea, erlateya
demasiado = larr, (B) eggy, goycari
demasiadamente = larr
largamente (B) lar
culpar = vearr egosçi
dia de hacer algo = vearr eguna
diez = amarr
diez veces = amarr viderr
duramente = gogorrtoro
espinosa cosa = gauça agarr daucana
espina de pece = arrayan agarra
granizar = escarr eguin
hermosura = ederryçatea
gritar = deadarr eguin hierro metal = burria
hormiguero = ynurtteya
lagrimar, llorar = negarr eguin
mancebo no barbado = mutil biçarr
uaguea
maridar = senarr artu
maridable cosa = gauça senarr arpayte
erraça
menester = bearr eun (edun)
menester es = bear da
menesteroso = bear deuena
mentir = gupurr esan
montar = dacarr, montadu
moscada nuez = vnsaurr mos...
nariz = surra
narigudo = surrandia
nariz romo = surr çapaldua
nogada, salsa = vnsaurr moxcadua
oledor = surr onac daucana
pedorro = vzcarr onpia
peer = vzcarr eguin
pellejero = çamarrguina
pellegero = çamarrguina
pellegeria = çamarguina calea
cien mill = eun mila
cinco mill = vost mila

catorze mill = amalau mila
catorze millares = amalau millare
gallo = ollarra
gallinero = ollateya
leer = yracurri
letor que lee = yracurlea
mill = mila
milla = milla
millar = millarea
millon = milloya
millones = milloyac
montar = dacarr, montadu
mulo = mandarra
mula = mando emea
perro - perra - chacurr arra eta emea
prestamente = lasterr
presto = lasterr
retorcer = viurrtu
restituir = viurrtu
ribera de rio = vraldea
rueda de carreta = gurr zila
qurrar queros = narruac çcurradu
en algun lugar = lecuren vaten
estavado de piernas = oyn oguena
entortar = oguendu
encoruar = oguendu
ganso = ançarra
oy = egun
plata = urrequia
oro = urregoria
pollo = ollascoa
primo = llobaydea
rana = çapallorra
reyno = erreytua
reyno = erreyña
alguno = norbayt
algun tanto = gerbayt
algunos = norbaytu
relampago = yrastua
relampaguear = yrastueca eguon
residir = eguon
reja de arar (lat. regula) = errellea
ropio = yunça
rociado = yunztadua
rer
roer = ysugui sagua leguez

ITXASTARREI ENTZUNAK

- Orain be tertzak nastauta?
— Amu bakar bat naiko da tertzta osoa enpatxateko.
•••
— Itzal dabil Kepa.
— Amua espanean dabil orrek.
•••
— Ama zelan?
— Apo apoan dabil. (Osta osta dabil)
•••
— Orain be asarre?
— Itxaso baltzeko gixona lez, orrek baketan dagona kalma zuritik ataraten bañoe ez daki-ta!
•••
— Zer egin dautse Pellori?
— Ezer ez, koasta apurtu. (sudurra apurtu)
•••
— Ondo egiñan pagu, ate onduan palu.
•••
— Palametriak (barometriak) zer diño?
— Zirazko erropa jantzi bildur barik. (Ekaitza datorrela)
•••
— Iño! Dotore dabil Patxi!
— Alakoxia ixan biar. Ori beti toleta baño zuzenago.
•••
— Ze pasa yako Peliri?
— Kale gorrira bota dabie etxetik.
•••
— Ezkontzeko pozik?
— Ezkonduten zareanean be ejatzu faltako Mart;jjen Garizimie.
•••
— Zelako mutille da Peru?
— Orrek bekokije garbi okiten deu.
•••
— Sinistu Pako'ri.
— Areri? Arek guzurreri jeusten itxi bez. (Guzur esaten geratu ez)
•••
— Zetan zabiltz Koldo?
— Jo Ondarru ta jo Motriku ibili. (An emen ibili)

ESAERA BEREIZIAK

- Eginbearraren eginbearrez (Gauza bat egiteko ardura geiegi artu eta orregaitik kaltegarri izan: Ura ikusi-bearraren ikusi-bearrez ibaira jausi zan).

- Neu-neutara, zeu-zeutara... (Ikasketak zeu-zeutara egin dozuz ala irakasleak izan dozuz?)

- Ezin esan alakoak esan eutsazan.

- Asko gabiltz zaiditik astora eta astotik lurrera. (Bizitzako goraberak, batez be irabazkidekoak ondo ez doazenean esaten da)

- "Kakotan egin" edo "laietan egin". (Lanean zein lanabes erabili dan esan nai dau, baiña atzizkia da bereizia, beste izkuntzatan ez dagoana).

- Beste zorro bateko uruna da ori. (Gogoan dan gaia baiña goragoko beste gai ba da, esaterako: Ba-dakigu lapurra dana, baiña guzurtia? Ori beste zorro bateko uruna da).

- Gogoan izan. (Toki batzutan alkarrizketako gaia esan nai dau: Zer izan dozue gogoan bidez zetoze? Zein gai erabili dozue alkar-izketan? esan nai dau).

- Adarra jo. Isekaz itz egin.

- A bai gizona!

- Gauza dana, gauza ez dana.

- Bake ba'da, (Aurten etorri gara eta datorren urtean be etorriko gara bake ba'da).

- Esaterako: adibidez.

- Neu egon naz ba! (Susmoa izan arren, gertatzeko gaitza dan zerbait. Kepa gogotsu agiri da bere lanean. Lendakariagaz egon ei da? Neu egon naz ba!).

- Autsak daukoz orrek. (Sorginkeri usaiña dauko esaera onek: Autsak euki, isilleko bideren bat jakitea lez da).

- Esan eta esan dabiltz. (Beti dabiltz esaten).

SUKIA'TAR JOXE MARI

Zaldibi'ko Errekalde baserriko semea, Aralarpean jaioa, orain 87 urte. Saturran'go seminario txikian ezagutu nuen 1.925-26 ikastaroan, ni bigarren kursoan, gazteagoa izan ere, eta bera lenengoan. Bosgarren urtean txanda-pasa egiten utzi zioten, zaarra zalako, eta, orrela, Filosofiako lenengo ikastaroan alkartu giñan. Euskeraz ikasi eta lantzen asteko asmoz, Kardaberaz taldean sartuta, ekin genion lanari. Don Manuel Lekuona'kin ar-eman estuak genduzen, baita Don Joxe Miel Barandiaran'egaz be. Azken oneri Etnolojia-lanetan laguntzen genion geure errietako lantxoak egiten; baita be, bere iker-lanak eta galderak apaizgaien artean zabalduz, eta bilduz. Don Joxe Miel'ek bazeukan, mutiko argi eta sendo onengan, bere itxaropena jarria, laguntzaille eta jarraitzaille bat billatzean. Uste auek ustel gertatu ziran, gerra negargarri baten ekiñez. Alkarrengandik galdu giñan.

Gerra-ondoren Ortuella'n topatu neban apaiz, D. Joakin Goikoetxeaundia parroko ebala. Geroago bera izendatu eben parroko. Errekalde'ko etxeko-andre zabala, bere ama, euskaldun utsa, an gastatu zitzaion, Bizkaiko paraje erdaldun aretan. Bere sasoirik onenak an pasata gero, Sestao'ko Karmel'eko elizara. Andik Palencia'ra Marian-Hill'ko praille-mutillen espiritu-zuzendari. Talde orren aldizkarian, euskerazko itzulpenak, bere gaiñ artu zituen, euskerazko orrialde bete bakoitzeko agertzeko eran. Ibilli eta ibilli, aizkenean Donostia'ko Oncologico'ra, an amaitu zitun bere egunak, sola naiko estuakin lotuta.

1.970'garren urtean, Gazteiz'ko Kardaberaz taldea berbizteko mezua arturik, emen genduan prest, Euskeraren aldeko lanetan etenik-jabe jarduntzeko. Aizkeneko urte auetan bera izan zan Kardaberaz'en Idazkari eta Galarraga Juan Mari'reki batera, arnasa ematen saiatu zan, il arte. Alde egin zigun, Juan Mari aurretik bialduta. Jaiotetik euskaldun, bizi osoan euskaldun, Kardaberaz'en lankide gartsu. Kardaberaz eta Euskerazaintza bat egitera eldu geranean, bera ez zan gure artean, baña, bere lanak ere, ekarri gaitu une onera.

Arrinda'tar Anes.
Deba'n, Otsaillak 10. Urtea 1.998.

